



«Desobedientzia
zibila gehitu
behar diegu
gure egungo
borrokei»

Arnaldo Otegi



- **Yuri Neira** Kolonbiako poliziak semea hil zionetik, justizia eske
- **Irakurle klubak** Literaturaz ikasteko, taldeka hobe bakarka baino
- **Nafarroako konkista** Historia liburuetan saldu diguten fikzioa
- **Zinemaren Legea Katalunian** 2018an saioen erdia katalanez izatea helburu

*Astero
irakurle gehiagok
aukeratzen dute
independentzia*

Jada 57.000* gara.
Urtebeteen %7,1eko igoera.





Azaleko argazkia:
DANI BLANCO
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaiz. www.argia.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoak: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Olatz Korta. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskutina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: SS-837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaina Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



Deabruaren abokatua

- **Garbiñe Petriati:** «Euskararen telefonoa itxaropenaren telefonoa da». ARITZ GALARRAGA / 4

Asteko gaia

- **1512.** Nafarroaren konkista probidentziala. BIXENTE SERRANO IZKO / 5

Pertsonaia

- **Itxaso Compañon Arrieta:** «Upategi handiak dira enpresa, ez gu, nekazariok». MIEL A. ELUSTONDO / 10

Gaiak

- **Yuri Neira:** «Gure senideak nork eta nola hil zituzten jakin nahi dugu». IRANTZU PASTOR / 15

Iritziak

- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENETA / 19
- **Krisia?** Gizartearena. XABIER ETXANIZ ERLE / 20
- **Txandan** Independentzia. JOSU AMEZAGA / 20
- **Aralar.** AITOR ZABALETA / 21
- **Bertso berriak** Lapur herri bati jarriak. JULIO SOTO / 22

Erdiko kaiera

- **Literatura.** Irakurleak du azken hitza. IRATXE ESNAOLA / 23
- **Pedro Elias Igartua:** «EiTBk eta bere kultura prebentiboak kalte handia egin diote euskal kulturari». MYRIAM GARZIA / 28
- **Liburuak** XABIER ETXANIZ ERLE / 30
- **Diskoak** IKER BARANDIARAN / 31
- **Ezpalak** JON TORNER / 32
- **Abarrak** MIKEL ASURMENDI / 33
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 34
- **Zientzia eta teknologia** JOXERRA AIZPURUA / 36
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 37
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

Termometroa

- **Arnaldo Otegi:** «Gure etsaiak Espainian daude, ez Langraitzen». MIKEL ASURMENDI / 39
- **Zinemaren Legea Katalunian.** Filmen %97 dira gaztelaniaz. ONINTZA IRURETA AZKUNE / 44
- **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA AZKUNE / 46
- **Maltzagatik** XABIER LETONA / 47
- **Net Hurbil** Fukushima 4: egin dezagun otoitz erori ez dadin. PELLO ZUBIRIA / 48

Azkena

- **Krisia eta bizi-poza.** IÑAKI MENDIGUREN / 50



“Euskararen telefonoa itxaropenaren telefonoa da”

Garbiñe Petriati

Bista txorrotxa behar baitu
Hizkuntz Eskubideen Behatokiko presidentak.

ARITZ GALARRAGA

Argazkia: Josu Santesteban

Behatokiren bat aukeratzeko hasita, ikusmira eskasekoa aukeratu ez ote duzun...

Ikusmen zorrotzeko behatokia da, haatik. Herritarren bizipenetan oinarritua. Analizatzen duen errealitate hori bai da eskasa eta gabeziaz beterikoa.

Esadazu zer ikusten den Behatokitik.

En castellano, por favor edota *vous êtes obligé d'utiliser le français* entzun behar izan duen euskalduna. Hizkuntza bat galtzen da dakitenek ezin dutelako erabili, elebakarrek hizkuntza inposatzen dutelako.

Behatokia Euskararen telefonoa soilik ote den galdetuko banizu...

Baiezkorik ezin esan. Zer dira hizkuntza-eskubideak? Zein da beste hizkuntza gutxiagotuetako egoera? Zer egin ahal dugu elkarrekin? Esparru horiek ere lantzen ditu.

Baina Euskararen telefonoa ez da, preseski, itxaropenaren telefonoa.

Euskararen telefonoa itxaropenaren telefonoa da. Herritarrek badaki ahal duen guztia egingo duela urraketa egoera gainditzeko. Kexak jarritz, emaitzak lortzen dira eta eragin egiten da.

Lagun erdaldun elebakar bati ez omen diote erdaraz atenditu. Nora deituko du gajoak?

Hori zientzia fikzioa da.

Nola? Erdaldun elebakarrek berdin ordaintzen dituzte zergak!

Hizkuntza politika egiten dena eta egiten ez dena da. Gaur egun herritar guztion zergekin diru gehiago bideratzen da erdarak indartzera euskararen normalizaziora baino.

Baina hizkuntzek ez, hitzunek dituzte eskubideak.

Eskubideak pertsonok ditugu. Hizkuntza eskubideak giza eskubideak dira. Oinarritzko giza eskubideak urratzen zaizkigu euskaldunoi. Ez diote hizkuntzari erasotzen, hizkuntza horretan bizitzeko eskubidea duten pertsonari eta komunitateari baizik.

Eta zer da garrantzitsuago: medikuak sendatzea edo euskaraz egitea?

Medikuak euskaraz sendatzea nahi dut. Kito! Kordobako Medikua Elkargoak dio: “Pazientea eta medikuaren arteko harremanean, komunikazioa da funtsezko osagaia”. Ezin egoki sendatu ulertzen ez zaituen pertsona batek.

Ze tema euskaldunok euskararekin!

Ez da tema kontua, eskubidea da auzia. Tematurik daude erdaldunak euskararekin. Hobe da jakitea ez jakitea baino. Euskal Herrian, hizkuntza dela eta, ez dago herritar guztientzat aukera berdintasunik. ■



1512

Nafarroako konkista probidentziala

Posible al da iradokitzea zer Nafarroa izan genezakeen gaur, XVI. mendeko konkista gertatu izan ez balitz? Posible da, bai horixe, eta joera handia dugu une historiko batetik aitzina izan dugunaz bertze iragan posiblerik asmatzeko, hots, historia-fikzioa egiteko. Jakina, ez da asmatze hori historialarien zeregina. Alta, zenbat historialarik ez ote dio ekin, profesionalaren plantan konkista hura kasu, harako gertaera haiek ezinbertzekotzat jotzeari? Eta hori ere ez ote da historia-fikzioa?

BIXENTE SERRANO IZKO

HISTORIALARIAK, profesional onak, ez ditu zertan hartu ezinbertzekotzat iraganeko gertaerak, une bakoitzean gertatu zirenez bertzelako gertaerak ezinezkoak izan balira bezala. Hain zuzen ere, bere papera ez delako iraganeko egun baten biharamuna asmatzea, eta horixe eginen lukeelako edozein determinismoren betaurrekoekin: historia-fikzioa alegia, eta iragana ontzat hartu berak maite duen oraina mugiezintzat jotze aldera.

Historialariak, profesional onak, iraganeko une oro garaian garaiko orain gisa ikertu beharko luke, unean uneko orain ireki gisa, non eragile desberdinak egon ziren, era askotan joka zezaketenak –maltzur, zintzo, inozo, azkar, koldar, ausart, larderiatsu, herrikoi..., nahi bertze jokamoldetan–, eta horren arabera gertaera hura edo bertzelakoa –biharamun/etorkizun hura edo bertzelakoa– suerta zitekeen gero. Gaur eguneko orainaldi honetan bezalaxe. Eta “suerta(tu)” diot nahita, zoria ere ez dagoelako historiatic kanpo.


Iraungitze data naturala?

Badaude Espainiaren historia erreferentzial dezente, tomo lodi askotakoak, zeinetan unibertsitate-katedratiko ospetsuenek parte hartu ohi duten; eta hain dira erreferentzialak, haietan oinarritu ohi direla gero hezkuntzako historia-programak eta testu-liburuak. Bada, horietako batean, bertzeetan erran gabe doan baieztapen biribila egiten du ohiko

MAPAS PARA UNA NACIÓN / TXALAPARTIA



Nafarroa eta Biarnoako lurraldeak agertzen dituen 1642ko mapa, M. Tauernier-ena. Konkistatua izan ez balitz, Nafarroak edukiko lukeen irudia islatzen du nolabait.



Goian, Espainiako historiari buruzko liburuak. Nafarroako konkista “ezinbertzekoa” izan zela diote horietako askok.

historialariak: alegia, XVI. mende hasiera hartan Erdi Aroko hondar “absurdu” halako bat zela Nafarroako erreinuaren iraupena.

Harribitxi miresgarriak aurki ditzakegu historia handi horietako orrialdeetan. Galde joan natzaio, adibidez, Tuñón de Larak zuzenduriko *Historia de España*-ko Nafarroaz adituari, Javier Zabaleri, eta beronek horrela erantzun dit bere orrialdeetan:

“*Ezinbertzez* haietako batek [Frantziak ala Gaztela-Aragoik] bereganaturik bukatu behar zuen [Nafarroak] edo –nafar monarkiaren *errealitate geo-historiko eta soziokulturalera* egokiago dena– bien artean zatiturik” (elkarrizketatuak ez, nik nabarmendurik daude ene belarrietan gogorren jo duten hitzak, hurrengo elkarrizketetan egingen dudak bezalaxe). Eta aurrerago: “Konkista hau gutxienez bi belaunalditan estugarriki luzatzen zihoan drama baten amaiera *logikoa*” izan da.

Galde joan natzaio, berdin, Menéndez Pidak zuzenduriko *Historia de España*-ko bertze aditu bati, Errege-erregina Katolikoez adituari, Manuel Fernández Álvarez, eta bertze hau bota dit: “*Geografia* aldetik, Espainiaren zati bat zen [Nafarroa], eta batasun politiko hartan haren sarrera izan zen Fernando Katolikoaren azken *Estatu-zeregin handia*”.

Bertze batengana ere jo dut, Modesto Lafuenterengana, berau bakarrik 29 tomatoko bertze *Historia de España* bat idazten ausartu zen harengana, eta bertze hau erantzun dit: “Nafarroako erreinu txikia, Frantzia eta Espainia artean kokaturik, frantsesa bere azkenaldiko harreman eta loturen aldetik, baina espainiarra *jatorriz, bere bizkuntza, ohitura eta kokapen geografikoarengatik, halabeharraz* agindurik zegoen goiz ala berandu birgaldat-

**Halabeharra, nafar herriaren
'volksgeist' espainiarra, geografiak
eratzen duen izaera...
Determinismoa dago historialarien
filosofiaren oinarrian**

tzeko monarkia espainiar handian. Bete behar zen *batasun legea*...”. Eta pozik ondorioztatu dit biribilki: “Eta horrela [Nafarroaren konkista dela medio] burutu eta biribildu zen azkenik espainiar *familia handiaren batasuna, agindurik* zegoen hura”; Iberiar penintsulako mapa aurrean, berehala lerratu zaio Lafuente jaunari begirada Portugal aldera, penintsula-

ko batasun legetari aurre egiten jarraitzen duen jende temati horrengana, eta nik deus berri-rik ere galdetu behar gabe, bizi-ki deitoragarriki –libre da irakurlea erabakitzeke zer den deitoragarri: Lafuenterentzat Portugalena ala edozein adimenarentzat Lafuenteren hitzak– jarraitu du: “Portugaleko erre-

nua salbu, gaztelar koroaren *zatikatze zoritxarrekoa* izan eta independente jarraitzen zuen hura”. Ez da harritzeko, horrelako giro historiko intelektualean, aipaturiko Manuel Fernández Álvarezek bertze hau ere, Nafarroaz ari, bota izana: “Berriro ere baieztatzen da tesi hura: *konkistaturik suertatu nahi duten herriak* baizik ez dira konkistatzen”.

Halabeharra, nafar herriaren *volksgeist* espainiarra, lege historikoa, geografiak eratzen duen herrien izaera eta bilakaera... Determinismoa dago azken buruan horrelako historialarien filosofiaren oinarrian. Gutxi izanen balitz, baten batek –Modesto Lafuente berriro ere– Probidentzia bera sartzen du prozesu historikoan: “Nork mugiarazten ditu [herriak]? (...) *Probidentziak*, zeina, ulertu ezinean, batzuek *fatalismoarekin* nahasten duten”. Eta jakin badakigu: “Norbanako bakoitzak, familia bakoitzak, herri bakoitzak, *nazio bakoitzak*, gizarte bakoitzak *bere misio berezia* jaso du (...) gizateriaren bizitza unibertsalari begira”. Ados, XIX. mende erdialdekoak ditugu



Ezkerrean: Joan Albretekoa Nafarroako erregearen irudi ezagun bakarra. Juan Flandeseoak margotu zuen Sevillan, errege-erregina Katolikoaren ondoan, *Ama birginaren mirariak* izeneko koadroan. Eskuinean: Katalina Foixekoaren irudia, Dominique Ingrès margolari ezagunak egin XVIII. mendean. Ingrés (jatorrizko abizena Ingreso zuen) Okzitaniako Tolosakoa zen eta, antza, aitzak Nafarroan zituen arbasoak. Potreta Jon Oria historialariak berreskuratu zuen eta Álvaro Adotek Nafarroako errege-erreginez idatziriko liburuan publikatu zuen.

bi aipuak, gaurko irizpide eta metodo historiografikoetatik kanpokoak. Baina, kontuz! Espainiaren historiari dagokionez, itzal handi eta luzeko paradigma baten sortzailea izan zen Modesto Lafuente, ñabardura eta egokitzapen “zientifikoago” batzuekin –gehienbat Menéndez Pidalen eginikoak– indarrean egon dena 1980ko hamarkada arte. Zer erranik ez, paradigma hura baitaratu egin zuen Falangearen fundatzaile José Antonio Primo de Riverak –ez al du irakurleak haren “*España es unidad de destino en lo universal*” definizio hartan Lafuenteren oihartzuna aditzen?–.

Nafarroa, lagunik gabe?

Jada ez, historia erreferentzial berrietan ez da Probidentzia sartzen Nafarroaren konkistaz ari direnean. Baina bai jarraitzen dutela ezinbertzekotzat jotzen hura. Atzetik Historiaren indar ezkutuak egonen balira bezala: direnak direla unean uneko giza-eragileen jokamoldeak, urak beren bidera joatera behartuko lituzkete. Eta Probidentziaren ordeztu hainbat baldintza historiko, hainbat indar-lerro jartzten dute mahai gainean, ezinbertzez konkista hartara eramane zutenak. Hala nola, garai hartako Nafarroa guztiz isolatua zegoela nazioarteko munduan, hutsaren hurrengo zela garai hartako europar estatuen mosaikoa, lekuri ez zuela Moderniaren sarrera errenazentista hartan. Determinismo historikoaren usaina darie horrelako irizpideei,

Historia erreferentzial berrietan ez da Probidentzia sartzen konkistaz ari direnean, baina jarraitzen du ezinbertzekotzat jotzen hura

begi-bistakoak izanen balira bezala lupa kritikorik gabe eta inertziat ontzat hartzen dituzten horiei.

Ez zegoen Nafarroa hobe-kien kokaturik lagunak lortzeko aldameneko monarkien espansionismo lehiakorren aurrean. Baina garaiko europar estatuen (des)kontzertuan estatu bat gehiago zen Nafarroa. Izatez, nola ez? Nafarroa Europako kantzileria guztietan izan zen mintzagai, negoziazioen gai, eztabaidagai: Frantzia eta Gaztelan, jakina, baina baita ere Vatikanon, Portugalen, Venezian, Ingalaterran, Inperioan... Eta, bai, Frantzia edo Gaztelaren arteko lehian, bataren edo bertzearen alde jokatu zuten aldizka bertze guztiek Nafarroaren piezaren inguruan. Vatikanok, azkenik, Gaztelaren alde, jakina denez, baina ezin erran Ingalaterrak, adibidez, begi onez ikusi zuenik Fernando Katolikoaren azkeneko esku-sartzea, inbasioa alegia: ezagun denez, aliatuak zeuden gaztelarrak eta ingelesak Frantziaren kontra, eta ingelesak Gipuzkoako kostaldean kanpatuak Guenian sartzeko prest, baina Fernandok Frantziari beharrean Nafarroari eraso zionean, etxera itzuli zen armada ingelesa horrelako ekintzarik hitzarturik ez zegoelako, Fernandok engainaturik ikusita Ingalaterrak bere burua.

Tudela del Dueroko aukera galdua

Sei urte lehenago, 1506an, Gaztelako goi-lautada abuztuaren eguzkiak bihozgabe kiskal-

tzen zuenean, negoziazio guztiz freskagarria egin zuten Nafarroako Katalina I.ak eta Joan III.ak Gaztelako errege berri Felipe I.arekin, Alemaniako enperadorearen semea berau, Tudela del Dueron, Valladolid hiritik gertu. Bazirudien horri esker ordura arte Fernando Katolikoak Nafarroari emaniko hartzaren besarkadatik libratuko zela Nafarroa. Ordura arte, izan ere, José María Lacarrak eta historialari gehienek deituriko gaztelar “protektoratu” baten altzoan zegoen euskal erreinua. Alegia, hartz-besarkadaren antzeko zerbait zen babespean: agaramontar eta beaumontarren arteko istiluetan, azken hauek Fernandok kontrolpean izateko aitzakiaz, okupaturik zituen Gaztelak Nafarroan hainbat hiribildu beaumontar (Larraga, Lerin, Artaxona, Iruñea bera...), bitartekotza gisa, 1495ean Madrilen sinaturiko itun baten arabera. Hartan, Nafarroatik egozten zuten Leringo konde beaumontarra, baina, horren truke, dirua eta lurak ematen zizkion Gaztelak kondeari. Horretaz gain, gaztelarren aldeko puntu batzuk sinatu zituzten, hala nola Nafarroa inoiz ez zela aliatuko Frantziarekin Gaztelaren kontra. Gero, 1500ean, Sevillako bertze itun batean, berreskuratuko zituen Nafarroak gaztelar tropek zaintzen zituzten plaza haiek, baina horren truke, Leringo konde eta haren laguntzaileei barkamena eman eta karguak eta ondasunak itzuli zizkien, betiere nafar erreinuaren neutraltasuna berriro baietsiz, hots, gaztelar hartz-besarkada oraindik tinko.

Bada, 1506ko abuztu amaieran Tudela del Dueron lortu zuten errege-erregina nafarrek zama horretatik libratzea, Felipe I.a ‘Ederra’-rekin eginiko bertze itun askoz faboragarriago baten bidez. Une hartan deseginik bide zegoen Fernando eta Isabel Katolikoek ezkonduko Gaztela-Aragoi Estatu-bikotea.

Ez al da zilegi pentsatzea beste iraganik izan zezakeela Nafarroak 1506tik gaur arte, Felipe I.a hil zen bezala hil izan ez balitz?

Izan ere, Isabel Katolikoa, Gaztelako erregina, 1504ko azaro amaieran hil zen. Oinordekoa Juana I.a ‘Eroa’ zen, Habsburgeko Felipekin ezkonduko zegoena. Fernandok hitzarmena lortu zuen Salamancan: alaba Juanak, suhi Felipek eta hirurek batera gobernatuko zutela Gaztela. Baina arazoak sortu zitzaizkion Katolikoari errege-erregina berriak Borgoniatik Gaztelara heldu bezain laster: alegia, Fernando ez zuten Gaztelako noble guztiek begi onez ikusten eta Felipek ere bere kabuz gobernatu nahi zuen; gauzak horrela, bi bando agertu ziren berriro gortearren inguruan, Felipearen aldeko bat eta Fernandorena bertzea. Fernandok

galdu zuen lehia eta 1506ko ekainean Aragoiko bere Koroara itzultzea erabaki zuen, Gaztelari utzirik eta Germana Foixkorekin ezkonduko, halako moldez non bikote berri honengandik seme-alabarik jaioko balitz, seme nagusiak

edo alabak hartuko baitzuen Aragoiko Koroa, Gaztela-Aragoi arteko uztartaria apurturik hortaz.

Tudela del Dueroko itunen arabera, bertzeak bertze, Gaztela eta Nafarroa-Biarnoren arteko aliantza sinatu zen: elkarri laguntza emanen zioten bertze hirugarren baten edozein inbasioaren aurrean eta asilorik ez zioten eskainiko bakoitzaren lurraldetik ihes egindako inori –puntu honek zuzen-zuzenean beaumontar buruzagia babes gaztelarra galtzera eramaten zuen–. Itunak Maximiliano enperadorearen bedeinkapen guztiak jaso zituen, eta Alvaro Adot historialariak dioen bezala, “Austriako Etxearen eragin-gunean sartzeak bermerik ematen zion Pirinioetako estatuari bere gauzak guztiz kontrolpean izateko Gaztelako presioetatik kanpo, eta Maximiliano I.aren, Aita Santuaren eta Ingalaterrako erregearen sostengua errazten zuen”. Lagun berriak lortu zituen, bada, Nafarroak, atera

ATXASPI HOTELA



...ametsetan bezala

Bittiria, 24 · Lesaka (Nafarroa) · T.: 948 637 536 · hotela@atxaspi.com · www.atxaspi.com





Felipe I.ak 1506an Nafarroako erregeekin Tudela del Dueron hitzarturikoa arras garrantzitsua izan zitekeen erresumaren iraupenerako. Baina hortik gutxira hil zen eta bertan behera geratu zen adostutakoa. Eskuinean, Juana I.a 'Eroa' ageri da bere senar Felipe I.aren hilotzaren aurrean.

ahal izateko Fernandoren hartz-besarkadatik, bai eta Gaztela-Aragoiren eta Frantziaren arteko presio itogarritik ere.

Dena dela, historian ere zoriak badu bere zeregina, eta ituna sinatu eta lau astera, uda partean Gaztelako goi-lautada kiskaltzen duen eguzkiak luzatu bide zuen bere indarra udazken hasiera arte, eta ezbehar bat ekarri: Burgosen zegoela Felipe I.a, pilotan kirolari, ur hotzegia edan omen zuen gorputza freskatzeko aldera, kontrasteak sukarra eragin eta egun gutxitan hil zen, irailaren 25ean. Ezuste hartaz baliatu ziren Fernando Katolikoaren lagun gaztelar nobleak erregeordetza berriro Aragoikoari emateko, Juana I.a errotat, ezgaitzat joa baitzegoen aurretik. Eta hor bukatu zitzairen nafar errege-erreginari Gaztelatik libratzeko aukera hura, Fernandok, Gaztelara heldu bezain laster, bertan behera utzi baitzuen Tudela del Dueroko ituna.

Iraganaren bridak

Hortik aurrera, jada, bai, Gaztela-Aragoi eta Frantzia artean ibiltzen saiatu zen Nafarroa, José María Lacarrak deitu zuen “politika kulunkaria” egiten, eta azkenik, Gaztelak euskal erreinua inbaditu ondoren, Frantzia bai-

zik ez zuen lagun izan, ezagun ditugun baldintza eta ondorioekin.

Hasierako galdera berriro mahairatuz: ez al da zilegi pentsatzea bertze iraganik izan zezakeela Nafarroak 1506tik gaur arte, Felipe I.a hil zen bezala hil izan ez balitz?

Ez galde, jakina, historialarioi; baina historialari batek, profesional-profesional, harako orain hartan gertatu zena ezinbertzekotzat, historiaren legeek agindutzat, filosofikoki beharrezkotzat jotzen badu, historialariarena ez, aztiarena baizik, profetarena, egiten du berak ere, hots, historia-fikzioaren edozein egileren antzera. Ez dut deus ere erran nahi historia-fikzioaren aurka, badaude lan eredu-garriak genero literario horretan. Baina profesional-profesionalaren planta eginik historialari batek iragan posible bakartzat aurkeztzen badigu bere ikerketarena, ez ote digu zerbait gehiago erraten, historialari gisa ez berari, ez inori, ez dagokiona? Ez ote digu erran nahi, iraganetik heredatu duguna mugiezina dela, Historiak agindua, eta, hortaz, gaurko oraina ere itxirik dugula, etorkizun bakar batera bertze aukerarik gabe, iraganak bridaturik, abiatu beharrekoa? ■



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ERAKUSKETA

Denbora eta premia (Guernica)

José Ramón Amondarain

> 02.09.2012

Pablo Picassoren *Guernica* margolan enblematikoaren egikera prozesuari buruzko saiakera, eta haren ikono balioaren eta gaur egun duen oihartzunaren azterketa.

Argibide gehiago:

www.artium.org

Itxaso Compañon Arrieta

«Upategi handiak dira enpresa, ez gu, nekazariok»

Mahatsaren orpotik dator mama gozoa. Mahatsaren orpoari, mahatsondoari mikrofonoa jarri eta usteko ez genituen historiak ekarri dizkigu azalera. Dena ez da mama gozoa izan.

MIEL A. ELUSTONDO

Argazkiak: Dani Blanco

Elkarrizketan nator, Itxaso.

Elkarrizketa niri? Merezi al dut, bada, elkarrizketa?

Nork merezi du?

Pertsona arrunta ez denak.

Arrunta zarelakoan?

Bai.

Ikusiko dugu poliki-poliki. 28 urte dituzu, nekazaria zara, mahastietan lanean... Enpresaburu?

Zorrak ditudanean besterik ez. Kar, kar, kar.

Zorrak izateko garaia da, krisia eta beste.

Bai, baina libre naiz hortik, zorrik ez dut. Alderantziz, dirua gastatzeko gogo handia, etxeko upategian dirua inbertitzeko nahia, hura berpizteko asmoa. Proiektu mordoak daukat, horretarako dirurik ez. Gurean upategia eta soroa ditugu ondare, hori da gure ondasuna, traktorea barne! Hamarren bat hektarea ditugu neba eta bion artean. Bera gaztea da eta ez dauka soroan lan egiterik. Urtean berrogeita hamar mila mahats jasotzen dugu, eta ardoa egiten. Saldu, berriz, ontziratu gabe saltzen dugu. Horretan ere badut gogo bat. Datorren urtean etiketatzen hasteko asmoa daukagu. Izena ere badut, baina ez daukazu publikatzerik oraindik...

Zer ekarriko dizu etiketatzeak?

Lehenengo eta behin, lana. Dirua ez dakigu, lana seguru da! Baina saiatu beharra daukat. Ardoa etiketatuta saltzeak irabazia handitzea

dakar. Ontziratu gabe salduta, irabazia txikia da. Baina esan dizut, etiketatzeak lan handiagoa esan nahi du. Eta inbertsioak. Etiketa diseinatu, ontziratzeak eta etiketatzeak makinan erosi. Lana beti. Irabazia, beharbada. Begera, kontuak atera nituen, eta egiten dudan ardoaren %20 ontziratuko banu, gainerako %80k ematen didana besteko irabazia izango nuke: %20 batean, %80 bestean, eta irabazia parean! Zer edo zer egin beharra dago. Helduek ez dute saltsa horretan sartu nahi. Lana da. Nekatuta daude, beharbada. Esango dizut, batzuek ardorik ere ez dute egiten! Upategi handiei mahatsa saldu besterik ez. Lana gutxiago, irabazia ere gutxiago.

Nortasun agiria

Itxaso Compañon Arrieta (Lantziego, 1984). Nekazaria. Jaioterrian egin zituen lehen ikasketak, eta Lapuebla Labarkako Assa Ikastolan batxilergoa. Andoingo Bideo eta Zine Eskolan izena eman eta egin zituen han bi urteko ikasketak, eta handik Bartzelonara jo zuen, postprodukzioa lantzeko asmotan. 2005ean, Lurdes Arrieta amaren heriotza, auto istripuan. Handik bost urtera, 26 urte Itxasok eta film batean lanean Almerian [Espainia], aitaren gaixotasunaren albiste. 2010ean hil zen Felix Compañon, aita. Gurasoak sasoiz hilak, mahastietara bidea hartu zuen, arbasoen legean, eta era berean, nekazari eskolan ikasitakoak azpikoz gora jartzeko duen premian.





Non ikasi duzu nekazari lanean?

Ez dut ikasi oraindik. Ez dakit. Ikasten ari naiz.

[Malakoak darizkio] Zerk hunkitu zaitu? Ardoa etiketatzen duzunean jarriko duzun izenak?

Gauden lekuak ere bai.

Beharbada horrek ekarri nau hona, ikastola atari honetara, nik jakin gabe. Kontatu beharra dut. Zuen ama Lurdes Arrieta zenak abiarazi zuen Lantziegoko ikastola 1979-80 ikasturtean. Huraxe herriko lehen andereñoa. 2005ean hil zen, auto istripuz, ikastolako beste bi andereñoekin batera. Handik bost urtera hil zitzaizun aita, Felix Compañon, minbiziak jota. Bizitza irauli zitzaizuen.

Gutziz. Ikaragarri diferentea da orain. Lehen ez genuen arazorik. Hobeto esan, bagenituen,

Traktore iraulia Facebook-en

"Traktorea irauli nuen behin. Onik atera nintzen, ordea. Irten traktoretik eta ondoko Upategira joan nintzen. Han, lagun bat: 'Mendi, traktorea irauli dut', 'zer ari zara, ordea?'. Bera urduri, ni lasai. Traktorea ikusi zuen, eta haren kezka: 'Seguru onik zaudela?'. Ez nuen okerrik. Are gehiago, kamera hartu, gupil gainean jarri eta argazkia egin nuen. Eta Facebook-en jarrita daukat, lehenengo urte hartako egunerokoarekin batera. Jarraitzaile mordoa izan nuen".

baina gurasoek hartzen zituzten beren gain. Haiena zen ardura. Gure beldurrak ere haien esku uzten genituen. Orain ez da horrelakorik. Orain nik daramat hori dena: ardura, beldurra, etxekoak zaindu beharra, neba, aitona, izeba... Patriarka hutsa naiz. Asko gogortzen zaitu egoera honek, baina nahikoa duzu konfiantzazko lagun bat izan ondoan, negarrez hasteko. Eta, hala ere, pozten nau negarrez hasteak, urguilua daukat. Gertatu zena gertatu zen, bai, bikaina nuen ama, bikaina aita, eta horrek negar egiteko poza ematen dit. Kanean ere, han esango dute: "Hara, hor doa *la moza*-ren alaba!". Eta ondoko herrira joan, eta galdetuko didate: "Eta zu zeinena zara?", "andereñoaren eta *el mozo*-ren alaba". Begiratzen didate eta esaten dute: "Ai, zer pena!". Ez zait horrelakorik gustatzen. Nahiago ditut bestelakoak: "Aurrera, ausarta zara!". Aita hil eta mahastiak lantzen hasiko nintzela erabaki nuenean, batzuek: "Baina nola landuko dituzu, bada, zuk mahastiak? Nola eraman behar duzu traktorea?". Orain bestela esaten didate: "Zein ondo egokitzen zaizun traktorea!". Edo, "azkarregi zoaz!", edo beste edozer. Jendea!

"Zein ondo egokitzen zaizun traktorea!"

Traktorea hartu behar izan nuenean, galdezka joan nintzen: "Baimen berezia behar da traktorea gidatzeko?". "Ezta pentsatu ere! Gizo-

nezkoek eramaten badituzte, zertan beharko da baimen berezia!”, erantzun zidaten. Eta uzta garaian hartu nuen traktorea lehenengo aldiz. Aurrera eta atzera. Dortoka eta erbia ditu marraztuak, bata aurrerako, bestea atzerako. Eta poliki-poliki hasi nintzen. Osabak esan zidan: “Zu ibili eta ez utzi ibiltzeari. Uzta garairako, prest izango zara”. Baita zera ere ibili! Ulertu nuela ikusi nuenean, beste zer edo zeri ekin nion. Uzta heldu zenean hartu nuen.

Baduzu soro lanerako adorea.

Egin behar da.

Hirugarren uzta izango duzu aurtengoa.

Atzo hasi nintzela esaten dut nik. Denbora gutxi. Lehenengoan uzta jaso besterik ez nuen egin. Iaz, prozesu osoa bete nuen, eta aurtengoa izango dut nire lehenengo ardoa. Horretan nago.

Ardoa gustatzen zaizu? Aita zenari ez zitzaion gustatzen.

Ez, hari ez. Niri bai. Amak berriz, ardo zuria nahi izaten zuen, edo aukeran xanpaina, kar, kar, kar. Niri ardoa gustatzen zait, bai gure etxekoa, bai besteetakoa. Besterena dastatzea gustatzen zait, gurea hobetzeko. Zenbat egun eduki duen sotoan, gehiago ala gutxiago, halako edo halako gustua ateratzen dion... Mundu bat da ardoa.

Aita hil aurretik Bartzelonan zinen, irudi munduan buru-belarri sartuta, postproduktzio ikasketak burutzen.

Bai. Andoingo Bideo eta Zine Eskolan ikasi eta Bartzelonara joan nintzen, ikasketak sakontzera. Aitaren heriotzan, pentsatu nuen: “Zer egin behar dut nik orain? Dena saldu? 60 urte dituzten mahastiak saldu? Ezta pentsatu ere!”, eta mahastiak neuk lantzea erabaki nuen. Urguilua, harrotasuna. Inork ez ninduen behartu, eta gustura ari naiz nekazari

Berria, ondua, erreserba

“Urteko ardoa da edatekoa. Ondua eta erreserba dastatzekoak dituzu. Baina eguna joan eta eguna etorri edateko baldin bada, ardo berria. Baliteke iritzi subjektiboa izatea, baina nire inguruan batek baino gehiagok du iritzi bera. Eta nekazariak dira, eta ardoa egiten dute, eta edaten dute. Beraz, nik ez nuke dudarik egingo”.

Bideo eta zinema

“Ez dut mundu horretan segitu nahi. Lagunartean zenbait lan egin, baliteke, etxeko bideoren bat... Afixaren bat, dela festarako, dela pintxo-potea egiteko... baina besterik ez. Ez nago irudi munduan lan egiteko. Eta ez nuke aldatuko”.

lanean. Lehenengo urtean, saioa egin nuen. Mahatsondoak kimatzea, adibidez, zaila egin zitzaidan. “Mahatsondoak alferrik galtzen ari naiz”, esaten nion neure buruari. Kimatu eta kimatu. Ez nuen uste mahatsondo haietatik ezer etorriko zenik. Baina hostoa ematen hasi zirenean, hazten, tentetzen... zeharo harritu nintzen.

Nork erakutsi zizun kimatzen?

Nebak. Eta nebari, aita zenak. Horrela. Horregatik esan dizut oraindik ikasten ari naizela. Kimatu behar denean, han ariko zait neba: “Luzeago moztu” batean, “motzago”, bestean. Baina ikasi dut ez dagoela kimatzeko modu bakarra. Nork bere gustua du, eta bere neurria. Niri, esaterako, nebak erakutsi dit, eta haren eskola dut. Tira, bestelako eskolara ere joan naiz, Guardiara, baina teoriak dioena ezin da praktikara eraman: “Hainbat graduako angeluan moztu behar da mahatsondoa”. Esan bai. Baina mahatsondo mordoa mahastian, zuk kimatu zain, bakoitzari dozena erdi ebaki egin behar dizkiozu, eta zoaz banaka-banaka angelua neurtzen eta haren arabera moztzen. Ez da posible. Nebak, hartu gurazeak eta klis-klas, klis-klas. Lan polita da. Gainera, neure nagusia naiz. Horrek ere badu abantailarik. Gutxi kobratu arren, nagusia naiz.

Gutxi kobratzen duzula? Nekazarien mundutik kanpo, sinonimo dira ardoa eta dirua...

Bai, hala esaten didate Azpeitian: “Errioxakoak ondo bizi zarete, gero!”. Eta nire erantzuna: “Ez naiz ez ondo bizi, ez Errioxan”. Hau Araba da!

Eta hemengo ardoa ez da Errioxa ardoa, Arabako Errioxako ardoa baizik. Zertan da izenaren kontua?

Lehen Logroño zen, orain Errioxako Komunitatea du izena. Bada sari bat, Errioxa Prestigioa izenekoa. Sari banaketa ekitaldian, sari-



Euskal Museoa

Miguel de Unamuno plaza 4
48005 BILBO

Tel. 94 415 5423

museoa@euskal-museoa.org

www.euskal-museoa.org



dunarekin batera han izango dira Errioxako Komunitateko presidentea, beste zenbait ordezkariarekin batera, denak Logroñoakoak. EAEtik, Arabako diputazioko ordezkaria, jendartean jarrita. Madrilen ere ez gara ezer. Hori bai, dirua behar denean, euskal gobernuari eskatzen diote! Lehenak dira ordaintzen.

28 urteko nekazari Itxaso Compañon Arrieta Gasteizen izan dela jakin dut, sindikatuko bileran.

Ahal izan dudana leku guztietan sartu naiz. Sartu beharra nuela uste dut. Gazteoi mugitzea dagokigu. Ematen du ondo bizi garela, baina ez da horrela. Kobratzen duguna kobratuta... Ez dakit nola ez dauden traktoareak errepide bazterrean erreta! Irabazten dugun diru apurra ondoko urteko mahastia zuzentzeko behar izaten dugu. Upategi handiak nekazariak estutzen eta estutzen ari dira, “itoko zara, itoko zara!” esanez, baina zeharo ito gabe. Beraientzat lan egitera behartuak gaude, esateko moduan, gutxi ordaintzen digute. Horregatik sartu nintzen sindikatuan. Arabako Errioxako Ardoaren Kontseilu Erregulatzailan ordezkari naiz, Sustapen Batzordeko kide naiz bertan, eta bilkura osoan ere askotan hartzen dut parte. Guardian izaten dira bilera horiek. Gasteiza ere joaten naiz, dela Acción Rural, dela UAGA...

OFF THE RECORD

Ore berezia

Lehenbizi, Lurdes ezagutu genuen, ama, andereño Lantziegoko ikastolan. Hantxe egin zuen senarra, Felix. Ondoren, haien seme-alabak, Itxaso eta Unai. Ikusten ditugunero, haien baitan bizirik ditugu hala Lurdes nola Felix. Jende maitagarria gurasoak, eta maitasun horixe dute ematen, eta hartzen, Itxasok eta Unaik. Ore bereziko lantziegotarrak.

Baina konturatu naiz nekazari helduak direla erakunde horietakoak, eta gazteekin egin nahi dut lan. Eta plataforma bat lantzen ari naiz: Arabako Errioxako Nekazari Gazteen Plataforma Independentea. Lagun batzuk elkartu gara, eta lanean hastekoak gara.

Sentsibiltate ezberdinak dituzue batzuek eta besteek, helduek eta gazteek?

Gazteak gurasoen mende ari dira lanean. Gurasoek berriz, ez dute egunerokoa besterik ikusten. Upategi handiek ematen dietena hartu, eta bizi. Gazteak ez dauka erabakitze-ko indarririk ere. Gurasoen eskuetan dago dena. Mahastietan jende adineko asko dago oraindik, eta jende hori mugitzea ez dago batera erraz. Eta aitak semeari minuta pagatzen dion bitartean, nahiko lan. Egoera ez da ona, eta orain ez baldin bada kontua mugitzea, ez da onik etorriko, nekazariarentzat, esan nahi dut.

Zer diozu nekazari euskaldunaz, zeure buruaz? Azpeitiarra ama, Lantziegoko ikastolako lehen andereñoa, bertan sortua zu, euskaraz ere badakien belaunaldi bateko kide Arabako Errioxan...

Askok ez luke sinetsiko. Hor ari dira asko, bateko EGA eta besteko hizkuntza profilak ateratzen. Hor dabilta nire koadrilako asko. Euskaraz hitz egiteko ohiturarik ez dugu, egia da, tartean ez bada ikastolara lanera etorritako irakasle gazteren bat gurekin batera irteten dena, edo halakoren bat. Hor ibiliko gara dozena erdi lagun, euskaraz Lantziegon.

Nekazari ikusten duzu zeure burua luzaro Lantziegon?

Bai. Hauze izango da nire bizia. Nekazari. Enpresaburu? Enpresa hitzak xarma kentzen dio gure lanari. Nahiago dut nekazari izan. Upategi handiak dira enpresa, ez gu, nekazariok. ■



• Yuri Neira •

«Gure senideak nork eta nola hil zituzten jakin nahi dugu»

2005eko maiatzaren 1eko manifestazioan, Bogotako kaleetan polizia nazionalak Yuri Neiraren seme bakarra hil zuen 15 urte zituenean. Nicolas gaztea asmatikoa zen eta lurrera erori zen, poliziak jaurtitako gasek itota. Segidan, zortzi uniformatuk buruan kolpatu zuten, heriotza eraginez. Ordutik, asteko zazpi egunak giza eskubideen defentsari eskaintzen dizkio Neirak.

Testua eta argazkia:

IRANTZU PASTOR



Yuri Neira Euskal Herrira etorri da babes bila. Argazkian, Gernikan.

SEMEAREN ERAILKETAK ez du zigorrik izan. Alderantziz, egun hartako polizia buruak mailaz igo dituzte. Kolonbian, egiazen alde isildu gabe borrokan aritzeak 25 aldiz atxilotzea, lau atentatu saiakera jasatea, etengabe-ko heriotz mehatxuak eta erbestea ekarri

dizkiote Neirari. Poliziaren basakeriaren kontrako mugimenduan erreferente da Kolonbian, hango ikasle eta gazte mugimenduen aita. Orain gogoz kontra etxetik urrun egon arren, argi du bere borroka Kolonbian dagoela.



Neira, Bogotan. Ezker-eskuin: semea hil zuten lekuan jarritako plakaren aurrean; semearen irudia duen kartelarekin; eta poliziaren bortizkeria salatzeneko egunean.



Zein da Yuri?

Egunero 24 ordutik giza eskubideen alde lan egiten duen aita bat, dena nire semea diodan maitasunagatik egiten dut-eta. Borroka ematen dio zentzua nire bizitzari, borrokalari zaharra naiz, otso bakartia, uluka ibiltzen naizelako etengabe, eta beti lagunez inguratuta nabilen arren, bakarrik sentitzen naizelako bidean.

Etiket botatzen zaituzte.

Alde egin behar izan dut, bizirik iraun nahi dudalako, batez ere semearen hilketaren inguruko egia jakiteko. Horrek behartu nau herrialdea gogoz kontra uztera, Kolonbiako egoera politikoa da erruduna. Gure politikariak denek narkotrafikatzaileekin eta paramilitarismoarekin dute zerikusia eta armada eta poliziaren bitartez herria etengabe zapaltzen dute. Horiek hil dute nire semea, beraz, ez naizenez isiltzen, ihes egin behar izan dut.

Nola aldatu da zure bizitza 2005eko maiatzaren 1etik aurrera?

Nire bizitza bitan banatzen da, egun horren aurrekoa eta ondorengoa. Lehen, aseguru saltzailea nintzen, egunkari irakurlea, etxetik mundua begiratzen zuen aita bat. Semea hil zidaten momentutik aurrera, herrialde honen egia iluna ikusi dut, nola erabiltzen den indarkeria, isiltasuna eta inpunitatea, komunikabide masiboen gezurak politikari hiltzaileak babesteko... Bestelako mundua aurkitu du, egia gordin asko dituen mundua. Lehen, mundu guztia ahazten nuen. Orain, nire

semearen memoriatik abiatuta, desagertu eta erail guztiak ditut buruan, gau eta egun.

Kolonbiako kaleetan "egia, justizia eta konponbidea" aldarrikatzen entzuten dut jendea mobilizazio sozialetan, baina gauza bera dio Gobernuak.

Ez dago ez egirik ez justiziarik, eta konponbideari dagokionez, Gobernuak biktimoi ogi papurrak eskaintzen dizkigu, horrekin dena moldatuko delakoan. Nazioartean, Juan Manuel Santosen Gobernuak saldu du biktimoi laguntzeko zerbait egiten ari dela, baina diru kopuru txiki bat baino ez digute eskaintzen, gure isiltasunaren truke. Guk konponbide sinbolikoa nahi dugu, gure senideak nork hil zituen jakin nahi dugu, nola hil zituzten, gorpuak non dauden, eta berriz errepikatuko ez denaren bermea.

Polizia hitzak zer ekartzen dizu burura?

Hiltzeko makinak dira. Hil dituzten guztiak ekartzen dizkirate gogora, ezagutzen nituenak eta inoiz ezagutuko ez ditudanak, kasu horien guztien inpunitatea, Gobernuak gure zergekin ordaintzen dituen hiltzaile arriskuak direla...

Inpunitateak definitzen du Kolonbia?

Bai, halaxe da, Kolonbiako hizki guztietan dago barneratua inpunitatea, ekintza bakoitzean, polizia edo armadaren operazio guztietan, masakre bortizketan, hauteskundeetan, hilketetan... Hitz horrek gure paisaia zeharkatzen du iparraldetik hegoaldera.

Dagoeneko erreferente bat zara Kolonbiako ikasle mugimenduarentzat.

Ez nuke nahi, ez bainaiz ez ikasle ez gazte. Erreferentea Nicolasen memoriaren alde egindako lana izan da batez ere. Lan handia egin dugu gazteekin, ezagutza baita benetan gauzak aldatuko dituen arma baliagarri bakarra, inpunitatearen aurrean babesteko eta egunero jasan behar dituzten zapalketei aurre egiteko arma bakarra. Horrek guztiak bihurtu nau erreferente, beti bilatu dut babesa beraientzat, poliziarekin istiluak hasten direnean ni jartzen naiz aurrean, nahiago dut ni atxilotzea haiek eramatea baino. Behar-beharrezkoa den ikasle eta gazte borroka ez estigmatizatzeko lan egiten dut gelditu gabe.

Nicolasen argazkia eskuan, Kolonbiako martxetan ikasleei esaten diezu zure semea ikusten duzula haien begietan.

Noski! kantatzen ikusten ditudanean nire semea ikusten dut kantatzen, eta dantzan ikustean, maitemintzen direnean, barrez ari direnean, triste daudenean...

Guztietan ikusten dut Nicolas, bestela askoz ere zailagoa litzaidake egunero aurrera egitea. Gazteek kaleetan hildako lagunen izenak oihukatzen dituztenean, hildako horien zati bat berreskuratzen dute. Beraien asalduran eta borrokan, egiaren bilaketan, hezkuntza duina aldarrikatzen dutenean... Hori guztia nire semeak ere bazuen, horrek ematen dit indarra.

Isilik ez egotea ordainarazi dizute.

Askotan esaten dut jada ez dudala zerekin ordaindu, baina aldioro zatitxo bat gehiago kentzen didate, existitzen zela ez nekien zatitxo bat gehiago. Seme bakarra kendu zidaten, nire bizitza pertsonala suntsitu dute, familia guztia banatu, bizitza laboral eta soziala dese-

"Kolonbiako hizki guztietan dago barneratua inpunitatea, ekintza bakoitzean, polizia edo armadaren operazioetan, masakre bortitzetan, hauteskundeetan, hilketetan..."



gin... Eta hori gutxi balitz, orain nire herrialdean lo egiteko eskubidea lapurtu didate. Dena ordaindu dut ezer izan gabe, eta jada ez dakit zer gehiago dudan Kolonbiako Estatuari emateko, baina isiltasunaren kontra egiten dudan ekintza bakoitzagatik faktura pasatzen didate.

Beldur zara?

Bai, beldurrik ez duela dioenari ez diot sinesten. Borrokan ez dago ez Batman ez Supermanik, denak gara sentitzen dugun pertsonak, eta sentitzen dugunean, beldurra agertzen da. Baina bi beldur mota daude: hil edo blokeatzen gaituen beldurra, eta oraindik eta beldur handiagoa, aurrera bultzatu eta oihukatzeko indarra ematen diguna. Bigarren hori da nik dudana beldurra.

Euskal Herrira etorri eta hemen pasatzen dena ikusteko aukera izan duzu orain.

Gauza batzuk entzunak nituen, baina egia esan dezente harritu nau. Uste nuen basakeriak beste herrialde batzuetan gertatzen zirela, ez Europa erdian. Kukutzaren inguruko ger-



Dive Tarpoón urpekaritza




Kirol portua, A7 lokala
48992 GETXO (Bizkaia)
Tel / Faxe: 94 4912577
divetarpoon@euskalnet.net
www.divetarpoon.com

takariak ikusi ditut, torturapean lortutako atxilotuen testigantza faltsuak, preso politiko-en dispertsioa... Nire herrialdea izugarri gogorazten dit, beraz, aurretik uste nuena baino hurbilago gaude errepresioari dagokionez.

Polizien basakeria globalizatua dago?

Inolako zalantzarik gabe. Polizien basakeria, multinazionalak eta boterea gutxi batzuren esku egotea, hori dena globalizatua dago. Botere piramide horiek mantentzeko polizia mota bat behar dute, botere sistema horien kontra dagoen guztia isilaraziko duen polizia. Eskola berdinetan ikasten dute eta herrialde ezberdinetan aplikatutako bortizkeria sistema berriak zabaltzen eta elkar-ikasten dituzte. Tokian tokiko uniformeak ezberdinak badira ere, poliziaren basakeria globala da.

Hortaz, elkartasuna ere globalizatu beharko dugu?

Kolonbiako ikasleek hau kantatzen dute: "Inpunitatea globalizatzen badute, erresistentzia globalizatuko dugu". Argi dute denak elkartzuz erresistentzia hori geroz eta indartsuagoa izango dela. Leku bakoitzean errealtatea ezberdina da, baina denek borroka bera dugu atzean, anai-arrebak gara, horregatik beharrezkoa da elkartasuna, bestela gurekin

bukatuko dute. Elkartasuna ez da janaria, arropa, dirua, liburuak edo ordenagailuak oparitzea, elkartasuna beste gauza bat da; Euskal Herrian zerbait gertatzen bada Bogotako kaleetara jendea ateratzea adibidez. Horretan, zuek Kolonbiarekiko duzuen konpromiso eta elkartasunarekin hunkituta nago.

Azkenik, zerk ematen dio zentzua eta indarra Estatuaren biktimari bati, aurrera egiteko?

Kasuan kasu ezberdina da, nahiz eta barnean agian oso antzekoa izan. Nire kasuan maitasuna da, duintasuna, elkartasuna eta errespetua. Semea hil zutenean, mendekua baino ez nuen nahi, denborarekin ulertu dut gauzak maitasunagatik egin behar direla, hori baita nire semeak ezagutu eta mirestu zuen aita. Eta maitasuna da aurrera egiteko nire bitamina. Semea gogoratzeak indarra ematen dit eta gazte bat polizia-etxetik ateratzea lortzen dudak bakoitzean, nire semearekin egin ezin izan nuena egiten dudala sentitzen dut. Manifestazio guztietan korrika ibiltzen naiz istiluetan gauzak lasaitu edo atxilotetak saihesteko, eguneko ordu guztiak ematen ditut inork ez dezan bukatu poliziaren eskuetan, ongi baitakit zer gertatzen den uniformedun hauek hartzen zaituztenean. ■



EGIZU HARPIDETZA EGIOZU HARPIDETZA

Hego Euskal Herrian 138 € / Ipar Euskal Herrian 168 €

Izen-abizenak

Helbidea

Posta kodea Herria

Herrialdea

N.A./I.F.K.

Telefona

e-posta

Kontu zenbakia (20 digitu)

Ikasle bazara (unibertsitate / euskaltegi) edo
Gazte Txartela baduzu %25eko deskontua harpidetzan.

943 37 15 45 · harpidetza@argia.com

Jaso lekuan
kobratu
SEILORIK EZ

argia

1-FD POSTA KUTXA
20160 LASARTE-ORIA
(GIPUZKOA)

TOLESTU

TOLESTU

TOLESTU

ERANTZUN KOMERTZIALA
Baimen zkia. 17352
(B.O.C. 22/99-06-02koa)

GORA PRO NOBIS

Asisko Urmeneta



INGALATERRAKO ERREGINA IRLANDAR
ERREPUBLIKARRENGANA ETORRI DA ...



EUSKAL INDEPENDENTISTEK EZ DUTE
ESPAINIAKO ERREGEREKIN BILTZEKO
ESPERANTZA ARRAS GALDU ...

Xabier Etxaniz Erle

EHUKO IRAKASLEA

Krisia? Gizartearena

A

zken urteotan egunero entzuten dugun hitza da. Hainbeste aldiz entzun ondoren gure paisaian kokatu dugu eta orain krisi horren aitzakiarekin etorriko zaigun edo zaizkigun murrizketak besterik ez ditugu espero. Politikariek, gure agintari politikoek, krisi ekonomikoaren ildotik urteetan eraikitako gizartearen eraldatu nahi dute. Osasun zerbitzu publiko eta kalitatezkoa, irakaskuntza, gutxieneko zerbitzuak, garraioak, laguntzak... denak murrizten ari dira, bai eta greba eskubidea, protesta egiteko aukera, ahotsa altxatzeko asmoa ere. Egoera latzean gaude.

Krisi ekonomiko (ekonomikoa baldin bada) horren haritik bestelako mugimenduak ere etorri dira, euskal prentsaren aldekoa esaterako. Eta hemen, laguntza beharrezkoa bada ere, bada beste krisi bat, are kezagarriagoa, are larriagoa, nire ustez.

Unibertsitatean ari naiz, gazte euskaldunak inguraturik, eta ez diet aparteko kezkarik ikusten euskal kulturarekiko. Kasu bakan batzuk kenduta gure gazteek ez dute euskal prentsaren beharrik sentitzen, ez dute kulturaren dirurik gastatzen... eta ausartuko nintzakezte esatera ez dutela euskal kultura kontsumitzen. Inork egin al du euskal irakurleen azterketarik?



ALEX LARRETXI



Euskal kulturak militantzia
behar du, oraindik ere gauza
asko militantismoz egin
behar dira, baina euskal
kulturak, batez ere,
kontsumitzaileak behar ditu



Nork erosten du euskal prentsa? ARGIA aldizkari honen harpidedunen bateaz besteko adina zein da?

Euskal kulturak militantzia behar du, oraindik ere gauza asko militantismoz egin behar dira, baina euskal kulturak, batez ere, kontsumitzaileak behar ditu; euskarazko liburuak irakurtzen dituzten irakurleak, euskarazko prentsa irakurtzen dutenak eta antzoki edo zinemetara joaten direnak, euskal abeslarien kontzertuetara hurbiltzen direnak. Eta horretarako bi erronka nagusi ditugu, eta bietan saiatu beharko genuke gogoz; batetik kalitatezko produktuak eskainiz, kontsumitzailea edukiagatik (ere) erakartzen dituzten produktuak; eta bestetik azken urteotako dinamika apurtu beharraz. Kezkagarria da unibertsitateko ikasleen artean, esaterako, dagoen ezjakintasuna euskal kulturaz; bitxia ikustea euskaraz ikasketak egin dituzten horiek zein prentsa irakurtzen duten; harrigarria politikoki hain kontzientziatuta dauden herritarrek ez dutela beren sosik gastatzeko beharrik

ikusten.

Krisia dugu inguruan, baina euskal gizartearen dagoena, euskal kulturaren inguruan sortarazten dena ekonomiaz haragokoa da. ■



TXANDAN

Josu Amezaga



Unibertsitatearentzat independentzia, alegia. Espainiako Gobernua hartzen ari den neurriek unibertsitatea ere ukitzen dute. Raxoiren taldearen lehen erabakieta-ko bat funtzio publikoko kontratazioak etetea izan zen. Estatuko unibertsitateek ez dute protestarik egin horregatik, irakasle berriak kontratatzea baino gehiago daudenak kaleratzea baitute buruan. Alabaina muga handia izan da UPV/EHurentzat; izan ere, prekaritate arazo handiak izan arren, aurreikuspenetan garapena ziurtatzeko lanpostuak ateratzea baitzegoen.

Geroago ikasleen tasak nabarmen igotzeko agindu

Independentzia

du Madrilek; berriz ere Espainiako unibertsitateak pozik, horrekin beren egoera ekonomiko tamalgarria arinduko dutelakoan; baita berriz ere, UPV/EHUREN aurreikuspen eta beharrianen aurka. Azkenik irakasleen irakaskuntza orduak igotzea erabaki du PPK. Errektore espainol gehienak pozik, horrela milaka irakasle kaleratu ahal izango baitituzte. Baina Baskongadetako unibertsitate publikoari ez dio inolako mesederik egiten, eta neurria nola saihestuko dabil. Unibertsitate publikoak ere, independentzia aldarrikatu beste biderik ez dauka, bere burua itoerazita ikusi nahi ez badu. ■



Aitor Zabaleta

KAZETARIA

Aralar

Luzaroan desio izandako egoerara heltzeko hainbat arrazoi izan dira, faktore ugari eragin dute. Zer edo zer berria ekarri nahian, arrazoi horietako bat aipatu nahi nuke, nire ustez funtsezkoa izan dena: Aralar alderdia. Oraindik denbora beharko da zurrumbilotik atera eta gauzak argitzeko, eta behin digestio astuna eginda, Aralar alderdia dagokion lekuan ipini beharko dela uste dut, nahiz eta ordurako behar-bada berandu izan. “Lorak hil baino lehen”, dio nire osaba batek. Mesprezuak, irainak zein mehatxuak jaso arren, ukazinezko eragin nabarmena izan du Aralarrek ezker abertzale tradizionalaren aldaketan.

Baina ez da, ordea, hurrengo hauteskundeetan egongo, ez behintzat ehuneko ehunean. Norabidea aldatu eta nahiago izan du bakarrik baino artaldera bildu. Biolentziaren kondena tinkoak ez ezik, politika egiteko beste modu batek bereizten dituela entzun izan diegu Aralarrekoei, eta hura bukatuta ere, badaukatela zer esanik eta zer eginik. Desberdintasunak azkar desegin dira, bat-batean ia, eta bere ahotsa, txikia baina berezkoa, ez da hauteskundeetako aukeren artean egongo. Pentsatu nahi nuke botoak irabaztea baino gehiago dela politika. Askotan esan dute hori Aralarrekoei, baina koherentziari baino galtzeko beldurrari garrantzia handiago ematen diote zenbaitzuek.



GAIZKA IROZ

Zenbakiei begiratuta argi dago Aralarreko boto emaille askok ez dutela begi onez ikusi aldaketa. Aralarreko boto gutxi hartu zituen Amaiurrek. Oso adierazgarria da Nafarroako kasua. Iruñean, Geroa Baik 1.600 botoko aldea atera zion Amaiurri, eta hor, inongo zalantzarik gabe, Aralarreko asko daude, nahiz eta alderdiko zenbait buruk hori ez onartu, modu txarrean gainera.

Beraz, askok aspalditik desio zutena, errealtate bihurtu da azkenik: lau hankako mahaia. Abertzaleentzat bi aukera besterik ez, zuria ala beltza, ez dago tar-teko kolorerik. Eta beste horrenbeste konstituzionalistentzat.

Hainbeste aldiz kritikatu-tako bipartidismoa berea egin dute abertzaleek.

Demokraziaren funtsetako bat da aniztasuna, txikienganakako errespetua, baina badirudi horiek ez direla oso gustuko. Txikiengazko lekuri-rik ez txikitasuna aldarrikatzen duen herrian. “Maite

iezaguzue gutxiago, eta botoa gehiago eman” zioen Santiago Carrillok bi alderdi nagusien handitasunaren aurrean. Politikoki gero eta pobreagoak gara, baina hemen gehienak pozik daude horrekin. Askok, gehiegik, nahiago dute zuri-beltzeko politika, koloretakoa baino. Grisa da horren emaitza. ■



Pamiela argitaletxeak,
Kulturaren aldeko Euskal Fundazioaren babesarekin

JUAN ZELAIA XII. Saiakera saria

antolatzen du, euskaraz idatzitako edozein gairi buruzko saiakerak edota iritzi lanak zabaldu eta sustatzeko asmoz.

Saria: 9.000 € · Bidaltzeko epea: irailaren 30a arte

Lanak bidaltzeko: Pamiela etxea (Juan Zelaia Saria),
Agustindarren industrialdea-Soltxate. G kalea - 31013 Iruñea

☎ 948 326 535 · soltxate@pamiela.com · Arauak: www.pamiela.com



2012

BERTSO BERRIAK

Julio Soto

Lapur herri bati jarriak



XDZ

I

Denak itotzen direnean ez
direnez denak itoko
Zu Botswanara, nola dituzun
elefanteak gustoko
Botila ardo bat bizkarrean
eskopetarekin pronto
Lagunentzako Juan Carlos eta
gure herrian: Juan Tonto!

III

Erreskatatu ostean banka,
aspaldian erdi gaixo...
Biharamunez Poloniara,
irribarretsu: Czesk (kaixo)
Printzipe baten aldamenean
zuen selekzioari so
Lagunentzako Mariano eta
nire herrian: Txorizo!

V

Justiziaren buru izate
horrek ze karga berekin...
Baretu behar estresa eta
Marbellan, goxo, atsegin.
Urrezko hotel, marisko bero,
xanpain koparekin...txintxin!
Prostitutentzat Don Divar eta
nire herrian: Esku zikin!

II

Zarzuelara iritsi zinen
printzesa baten maitale
Aizoon enpresa, ezkontza opari,
maite zintuzten seinale
Email ezkutu, Suitzako kontu,
faktura faltsuen zale..
Lagunentzako Iñaki eta
nire herrian: Ebasle!

IV

Lehen Aznarren eskuin eskua,
heldu zenean agurra
Bankian buru jarri zintuzten
nonbait gizon bat zuhurra.
Kargua utzi duzu nola ez
den lantegi bat xamurra
Lagunentzako Rodrigo Rato,
nire herrian: Lapurra!

VI

Gürtel kasua, Campsen trajeak
barregarri, lotsagarri...
Gai honi buruz ahal nituzke
nahi adina bertso jarri.
Lapur herri bat da Espainia
herriz herri, zerriz zerri
Eta gureak ez du izan nahi
lapur-herri baten herri.



DOINUA: Andre txarraren bentajak.



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

Literatura

Irakurleak du azken hitza

Irakurle taldeak eta idazleekin egin solasaldiak nabarmen ugartu dira azken urteotan. Herriz herri abiatu gara liburuen iruzkinak partekatzeak sortzen dituen ilusio eta kezken bila, Lapurdiko ertzetik Gipuzkoako kostara, Bizkaian barrena segituz, eta Nafarroako bihotzeraino.

IRATXE ESNAOLA

URRUN dirudite irakurketa eliteen pribilegio ziren garaiek. Hezkuntza sistema arautuaren ezarpenak ekarri zuen egungo subjektu irakurle modernoa, bere irakurketen jabe dena, publizitateak eta sugestioak bideratutako jendarte batean hori posible den neurrian. Irakurketa bakarkakoa eta bakartia irakatsi zaigu, alabaina, gehienoi. Literatura aletzeko eta xehetzeko ez dugu ekimen kolektibo asko landu. Horregatik da interesgarri irakurle taldeen ugartzea. Nekez errolda daitezke egun Euskal Herrian dauden klub guztiak, baina agenda literarioei begiratu bat ematea aski da haien hedapenaz jabetzeko. Askotarikoak dira. Batzuk, udaletatik zein liburutegietatik egindako eskaeraren ondorio sortu dira, norbanakoek sustatuak, bestetarik. Idazleak taldeen “gidari” dira, zenbaitetan. Badira literatur gai zehatz baten inguruan solastatzeko biltzen direnak, baita Interneten bidez liburuak komentatzen dituztenak. Baina gehienak herriz herri abiatuta aurkituko ditugu eta literatura dute hizpide. Arratsalde-iluntzeetan bildu ohi dira liburutegietako geletan, sotoetan, hoteletan, elkarteetan. Literatura bizitzeko makina bat modu bada. Lau esperientzia ezagutu ditugu guk.



Uxue Alberdi Getariako irakurle taldeko antolatzaile eta idazlea. Behean, Zumaiako irakurle taldea Harkaitz Canorekin.



Hendaiako Akelarre elkarteko kide da Mikel Asurmendi (Zumarraga-Urretxu, 1958) ARGIAko kazetaria, eta herri berean, *Literaturaren Menturan* ekimenaren kudeatzailea. Lehen hiru urteetan (2005-2007) talde gabeko jarduna izan zen ekimena, Asurmendik berak proposatua eta bere ardurapean. “Idazle bati deitu eta hitzaldi bat

“Menturazaleok idazlearekin ordu luze batez biltzen gara, eta bere liburuari buruzko gure juzkuak eta aburuak ematen dizkiogu. Entretenimendua eta ikasketa literarioa da gurea, batez ere”

MIKEL ASURMENDI, HENDAIKO LITERATURAREN MENTURAN EKIMENAREN KUDEATZAILEA

ematen zuen hark, liburu baten gainean. Azken bost urteetan (2008-2012), berriz, taldean ari gara. Hitzaldietara zetozen zenbait lagun artean taldea sortzea erabaki zen. Batzuek utzi dute, bestetarik etorri dira, baina bada nukleo bat, bost lagunekoa”.

Ezagutu ditugun klubetan ez dira 15 lagunetik gora elkartu ohi, irakurtzeak eskatzen duen denboragatik, apika, edo taldean mantentzeak galdegiten duen jarraikortasunagatik, bestela. Hendaiako taldeak *Neguko Poesia* atalean poesia errezitaldia eskaintzen du, eta *Udaberriko Narrazioa* deiturikoan, idazlearen hitzaldia. Bai batean eta bai bestean, bi norabidetan ekiten du taldeak, Asurmendik argitu digunez: “Menturazaleok idazlearekin ordu luze batez biltzen gara, eta bere liburuari buruzko gure juzkuak eta aburuak ematen dizkiogu, batzuk kritikoak. Bestetik, galderak egiten dizkiogu. Entretenimendua eta ikasketa literarioa da gurea, batez ere”. Lapurdiko irakurleak oraingoz agurtu eta Gipuzkoara ailegatu gara kostako bideari jarraiki. Katu-kale da Getariako irakurle taldearen izena eta Uxue Alberdi (Elgoibar, 1984) antolatzailea. Hilean behin liburu bat irakurri eta bi hilean behin idazlea gonbidatu ohi dute Saias Hotelean egin bileratara. Getariakoaz gain, Zumaiako irakurle taldean ere parte hartzen du Alberdik, *Irakurri matte* izenekoan, Foronda kultur etxean. 10-15 lagun elkartzen dira bi taldeetan eta bi herenak edo gehiago emakumeak dira. Taldekideek, anitzak diren neurrian, ez dute helburu bakar bat: entretenimendua, irakurketaren plazera, euskal literaturarekiko interesa... Baina ezberdintasunak ezberdintasun, literaturaren kontzeptu kolektiboa gauzatzen da taldean. “Irakurketaren kontzeptu kolektiboak zabaldu egiten du irakurketa indibiduala, eta ideien eta

letren mundua lurtartu egiten du. Konpartitzean esperientzia terrenalagoa bilakatzen da. Zinera bakarrik joatea oso gustagarria izan daiteke, baina pelikula amaitutakoan hartzen den tragoak ere badu zerbait berezia”, erantzun digu Elgoibarko idazleak. Jakina, norberak bere irakurketa propioa du, baina zerbait partekatzen dugun aldiro, gurea duguna eraldatu egiten da. “Liburuak hobeto ulertzen dira” akordarazten digu Alberdik. “Bakoitzari gauza batek ematen dio arreta. Bati gustatu zaiona, edo sinesgarri gertatu zaiona, edo hunkitu duena besteren batentzat disgustuko da, sinesgaitz, naif. Irakurketa batek ez du besteak baino gehiago balio”. Irakurle taldeen ezaugarriarik behinena bakarrik egindakoa besterengana ekartzea da, elkarri banatzea. Aritzen direnek badakite trukearen balioa azpimarratzen, Hendaiatik Mikel Asurmendik egin bezala: “Batera edo bakarka irakurri eta gero kontrastatzean, hainbat ikuspegi agertzen dira, ezberdinak. Beraz, ikasi egiten dugu elkarrekin. Literaturak hamaika ertz ditu, eta denok ez dugu haietan berdin erreparatzen”.

Bakartzeari aurre egiteko modua

Durango, Markina, Iurreta, Bermeo. Basauriko Pozokoetxeako eta Igorreko kultur etxea. Isa Castillo da talde horien guztien arduradun. 8 eta 12 lagun artean batzen dira eta ohartzen gara orduan eta irakurle gehiago, orduan eta anitzagoak direla deskubritzen ditugun helburuak. Castillok aurreratzen dizkigu zerbait: “Batzuek gaztelaniaz irakurtzeko ohitura dute, baina ez euskaraz. Taldean beren burua behartzeko modua topatzen dute. Bestetuei, merkatuan dauden liburuen artean zer irakurri aukeratzea kostatzen zaenez, etorrita ez dira hain galduak sentitzen. Badira liburuak komentatzeko irakurketa arretatsuagoa egiten dutenak eta hori bilatzen dutenak”. Liburuak komentatzeaz gain, saioak literatur munduko ekitaldiak, liburu berriak eta informazio osagarria jasotzeko uneak dira. Eta hitz egitekoak, bakartzetik alde egitekoak. “Egungo jendartearen mahai baten inguruan jarri eta hitz egiteko aukera gutxi dago. Irakurtzea ekintza bakartia da, baina batzuek irakurritakoa komentatzeko beharra dugu. Literatura, neurri batean, jendartearen eztabaidagai diren gaien isla denez, liburuen bitartez gure buruei buruz hitz egiten dugu”, nabarmendu digu Castillok. Ohikoa izan ohi da hizketaldietan liburuko esperientzietatik norbere bizitzakoetara iragatea eta liburuak alboratuta geratzea. “Askotan gertatzen da, baina non amaitzen da literatura eta non bizitza?” egin digu Alberdik gogoetarako gonbitea.



Tere Irastortza, *Neguko Poesia* ataleko errezitaldian, Hendaian.

Irakurleez ikasten

Txantreako Euskaldunon Biltoki elkarteko partaide da Aingeru Amorebieta (Trintxerpe, 1955). Duela 4 urte sortu zuten irakurketa taldea Iruñeko auzo mitikoan eta 5-6 lagun batu ohi dira lemazainen beharrik gabe. “Berdinak gara denok eta denon artean aukeratzen ditugu liburuak. Gure bilerak oso ximpleak dira: hiru astetik behin elkartu eta gidoirik gabe solastatzen dugu”, erran digu Amorebietak. Modu berean, ez dute irizpide espezialik liburuak hautatzeko. Kide batek liburu bat proposatu izana, edo egunkariko iruzkin literario bat irakurri izana, gomendio bat, apika, aski arrazoi bada aukeraketa gauzatzeko. Umorea galdu gabe, Amorebietak

irakurle taldeen jardunari beste ezaugarri kolektibo bat txertatzen dio, liburuak merkatu logika kapitalistatik ateratzera gonbidatuz. “Hasieran liburuak erosten genuen. Orain liburutegietakoak erabiltzen saiatzen gara. Badakizu, gaurko etxeetan toki gutxi dugu eta liburuak garesti samarrak dira!”.

Idazleei egiten zaien parte hartzeko gonbidapena bere modura kudeatzen du klub

“Hasieran liburuak erosten genuen. Orain liburutegietakoak erabiltzen saiatzen gara”

**AINGERU AMOREBIETA,
TXANTREAKO IRAKURLE TALDEKO KIDEA**

iRuNazarRa
TaBERNa • JaTeXea

Merkaderes kalea, 15 · 31001 IRUÑA (Nafarroa)
T 948 22 51 67 · info@irunazarra.org · www.irunazarra.org

CuadraBus

www.cuadrabus.com

☎ 945 890 804 / 670 477 727 · Faxes: 945 892 215
info@cuadrabus.com

bakoitzak. “Oso gutxitan ekarri izan dugu norbait. Liburua gure artean komentatzea gustatzen zaigu”, argitu digu Iruñean bizi den trintxerpetarrak. Eta bai, arrazoizkoa dirudi. Pentsa daiteke idazlea bertaratzeak izan baduela arriskurik. Ez al du iruzkinen nolakoa baldintzatuko? Isa Castillok onurak besterik ez dizkio ikusten, ordea. “Jendeak atsegin du idazlea ezagutzea. Ez du irakurketaren norabidea baldintzatzen, saioarena baizik. Gainera, liburuaren inguruko anekdotak kontatzeaz aparte, idazketa prozesua ezagutzea interesgarria da”.

Idea hau berretsiz, Hendaiaiko taldean “entretanimendua eta ikasketa literarioa” azpimarratu zituen Asurmendik, eta Alberdik, bide beretik jo: “Ez dugu idazlea epaiketa publiko batera gonbidatzen. Asmoa interesa pizten digun ogibide bati buruz, liburu jakin bati buruz gehiago ikastea da, eta une interesgarri eta atsegina igarotzea”. Idazle den aldetik, irakurlez inguratu izanak oparitu dion lezioa ere argitu digu elgoibartarrak: “Irakurle asko irakurritakoaren inguruan hitz egin nahi



Txantreako irakurle taldea Euskaldunon Biltoki elkartearen babesean sortu zen.

izaten dute idazlearekin, ez hari entzun bakarrik. Hemendik aurrera, idazle gisa gonbidatzen banaute, gutxiago hitz egiten eta gehiago entzuten ahaleginduko naiz”. Irakurlea eta idazlea gurutzatzen diren lekua izan, hurbil deritzan letren aberrian. Horra irakurle taldeek eskaintzeko dutena. Jaurti dezala lehen hitza idazleak, eta azkena, irakurleak. ■



Kalean da udako



aizu!

- Maite ditut, maite, gure bazterrak... baita udan ere!
- Zuriñe Hildalgorekin solasean
- Oporrak baserrian, kanpinean eta autokarabanan

Urte osoko harpidetza (Hego Euskal Herria eta Espainia) **29 €**
aizunet.org

Zero Zabor *bloga*



*Hondakinik onena,
sortzen ez dena*

Hondakinen inguruan Euskal Herrian
eta munduan sortzen diren informazio,
dokumentu eta iritzien agertokia.



Pedro Elias Igartua

«EiTbK eta bere politika prebentiboak kalte handia egin diote euskal kulturari»

Musika aditu gisa ibilbide luzea egin du Pedro Elias Igartuak, Bilboko Herri Irratian lehen urratsak eman zituenetik. Aspaldion Soinugela irratsaioa eskaintzen du astero Bilbo Hirian. Aldizkari espezializatueta (Muscara, El Tubo) eta eguneroko prentsan (Deia, Egin, Gara) artikulu ugari idatzi du, gehienak gaztelaniaz, 40 urte zituela euskaldundu baitzen.

MYRIAM GARZIA

Musika zaletasuna nondik datorkizu? Musikari izateko tentaziorik izan al duzu inoiz?

Gitarra jotzen dut, baina ez oso ondo, niretzat besterik ez. Ni, sukaldaria baino, gourmeta naiz. Txikitandik dut gustuko musika. Ikasketei dagokienez, Filologia Ingelesa ikasi nuen, eta rock and rolla ingelesez izanik, maite nuen testuinguru horretan murgiltzea. Egun musika mota guztiak ditut gustuko. Musika edota kantagintza bere testuinguruan ulertzen saiatu naiz beti, zein gizartetan edota zein unetan sortu den kokatzen, zein jendarteri begira azaldu den jakiten.

Musika eta Zentsura hitzaldia prestatzeko zein irizpideri heldu diozu? Musika arriskutsua da?

Izan daiteke, antza, musika edota musikarien lana. Zentsorearen figura historia bezain zaharra da, erromatarren garaitik ezagutzen da. Zentsura edota zentsuratzeko tentazioa beti izan da eta izango da.

Gaur egun ere bai.

Erljioa eta kantagintza edo dantzarako musika, esate batera, beti izan dira konfliktuan. Herrialde arabiarretan, adibidez, kantariak izugarritzko arazoak izan dituzte azken bizpahiru hamarkadetan. Aljerian zentsuratu ez ezik, hil ere egin dituzte kantariak. Ezagunena Cheb Hasniren kasua du. Horregatik, herrialde horretako kantari asko Frantzia bizi da, ezin dute haien herrira itzuli. Sudanen eta Somalian ere arazo larriak dituzte.

Maryan Mursan Somaliako kantari handiak seme-alabekin erbesteratu egin behar izan zuen, urtebete eman zuen ihesian. Hilko zuten bestela. Maliko estatu kolpea dela eta, irakurri dut Al Qaedaen sokako tuaregek debekatu egin dutela telebista ikustea, futbolearen aritza, musika erlijiosoa ez den oro entzutea.

Botereak zentsuratzen du beti.

Boteririk ez duenak ezin du ezer zentsuratu. Gobernu baten eskutik hel daiteke, edota poliziaren bidetik, edota hedabideren bateko zuzendariren baten eskutik. Zentsura mota askotakoa izan daiteke. Zentsurak beti aurkitu du bidea, eta euskal kantagintzan agerikoa izan da.

Frankismoaz ari zara?

Ordukoa oso nabaria zen. Bada liburu bat Frankismo garaiko zentsura aztertzen duena, Xavier Valiño galiziarrek gaztelaniaz idatzia: *Veneno en dosis camufladas: La censura en los discos de pop-rock durante el franquismo*. (Milenio). Francoren garaiko zentsore baten baimena lortutako disko bati buruz esandakoa da, hain zuzen, izenburua. Pozoia dosi ikusezinetan. Garai haietan Euskal Herrian zenbait disko Iparraldean argitaratu behar izan ziren, Hegoaldean ezinezkoa zelako. Imanolek eta Mikel Laboak, adibidez. Eta zer esan Michel Labeguerie kantagintza garaikidearen aitari buruz. 1961ean argitaratutako bere diskoa debekatu egin zuten Hegoaldean, azalean ikurriña agertzen zelako.

G.U.G.



«Jendeak uste du gaur egun ez dagoela zentsurarik, baina ereduak hor daude. ETBn musika saiorik ez egotea, Espainiako telebistetan euskal musikaririk ez agertzea, horiek ere zentsura dira».

Ez zegoen logika handirik zentsuratzeko orduan, kantu batzuk ezin ziren irratietan jarri, beste batzuk ezin ziren grabatu, eta beste batzuk ezin ziren zuzenean jo. Oso arbitrarioa eta zentzugabea izaten da zentsura. Benito Lertxundik Lourdes Iriondoren hitzekin egindako *Detroit 67* abestia debekatu egin zuten. Lertxundik, hala ere, gogo handia zuen abesti hura kantatzeko eta izena aldatu zion, *Kantu beltza* deitu zion bigarrenengan. Eta baimendu egin zuten.

Egun bada zentsurarik euskal kulturari dago-kionez? Autozentsura, agian?

Zentsurak aurpegi ugari du. ETB1en,

adibidez, ezer gutxi ematen da kulturaz. Azken 30 urteotan, kulturari buruzko saioak salbuespenak izan dira, eta arazoak izan dira beti. Gauzak horrela, gure musikariek ez dute tokirik ETBn. Ez dute errespeturik. EiTBk kalte handia egin dio euskal kulturari. Politika prebentiboa da hori: kultur saiorik ez badago, ez dago zentsura aplikatu beharrik.

Kafe Antzokia zabaldu zenean, euskal talde askoren areto bakarra bilakatu zen. Gaur egun ere, euskal talde askok ez du leku guztietan aritzeko erraztasunik. Ruper Ordorika behin besterik ez da izan Barakaldo Antzokian, hark esanda, eta urteak darama kontzertuak eskaintzen. Hori ere zentsura da, euskal taldeek zenbait tokitan duten agerpen eskasa, nahiz eta, aipatu dudan tokia udal antzokia izan. Guztien diruz egindako gauzek guztientzat behar dute izan.

Bilboko Udalak eta Bizkaiko Diputazioak ere zentsuratzen al dute Kafe Antzokia?

Jeltzaleak ez dira inoiz eroso sentitu kulturako jendearekin, eskuineko alderdi gehienetan gertatzen den bezala, kultura ez da euren mundua, salbuespenak salbuespen. Euren jendea bakarrik axola zaie. Eta zein da euren jendea? Merkataria. Artearen eta diruaren artean aukeratzekotan, negozioaren alde egingo dute beti. Esan bezala, eskuineko alderdi guztiez ari naiz.

Musikaren norabidea markatuta dago. Batzuen mesederako?

Musika-industria krisi latzak jota dago, eta orain, diskorik saldu ezean, zuzeneko saioak egitea besterik ez zaie geratzen talde gehieni. Telebistan agertzea garantzitsua da. Zaila da esatea musikariek zein neurritan autozentsuratu duten beren lana. Oskorraren *Gora eta gora beti* abestia hartzen badugu, “Gora Lapurdi” esaten da. Gabriel Arestik –berak idatzia baita– “Gora Euskadi” idatzi zuen hasiera batean eta gero eufemismoa erabiltzea erabaki zuen, Frankismo garai hartan, debekua saihesteko. Zentsuraren kontra bideak zabaldu dira, eta herriek, areago Euskal Herriak, debekuen aurrean erreakzionatzen ere ikasi du.

Sarea uste bezain askea da?

Debekuak izan badira, Txinan adibidez. Hemen ere, sabotajea egin zaie euskal kulturaren inguruko zenbait guneri. Jendeak uste du gaur egun ez dagoela zentsurarik, baina ereduak hor daude. ETBn musika saiorik ez egotea, Espainiako telebistetan euskal musikaririk ez agertzea, horiek ere zentsura dira. ■



Liburuak

KRITIKA

Enararekin batera

Haur eta gazteen literatura

Xabier Etxaniz Erle

“ITSASLABARREAN, lasto eta buztinezko habia bat bizipozez bete da udaberriro bezala. Habiak bost arrautzatxoren barruak gordetzen ditu, epel eta goxo hazten. Adi! Moko txiki batek arrautza-oskola hautsi du!”.

Horrela hasten da enara ttipi eta abenturazale honen lehenengo egunak kontatzen dituen istorioa. Txita jaioberriak itsasoa ikusiko du, bere mokoan ezarritako tximeleta, paretan behera datorren muskerra... Habian dagoelarik mundu bat deskubritzen joango da enara ttipia, eta mundu ttipi horretatik mundu handira egingo du jauzi hegan hastean.

Liburuaren argumentua, beraz, horixe izango genuke, nola deskubritzen duen mundua enara txikiak, koloreak, animaliak, toki eta egoera ezberdinak, eta azkenik, janari asko dagoen leku zoragarria. Bidaiaren amaieran, enara habiara itzuliko da eta han bere bidaiaren berri emango die senideei: “Ibaiari jarraituz, gure txoritxo erraz itzuli da etxera, eta senideek pozez zorutzen hartu dute. Bere balentriak kontatu dizkie, eta janaz mukurua dagoen laku zoragarria deskribatu dienean bertara bizitzera joatea erabaki dute”.

Liburuak, baina, testu bidez baino, irudien bidez kontatzen digu istorioa. Irudi errealista eta ikusgarrien bidez Mikel Mendibilek errealtatearen ikuspegi oso ezberdin eta ederrak eskaintzen dizkigu. Hasieran bertan habia itsaslabar batean kokaturik aurkezten zaigu, eta goitik ikusita habia barruan dauden



Enara ttipia. Testua eta irudiak: Mikel Mendibil Ainzua. Denonartean, 2012.

arrautzak ikus ditzakegu, eta alboan amildegia, paretaren itsasoraino. Enararen bidaiaren ere antzeko zerbait gertatzen da, laku zoragarria, kolorez betea, aurki dezakegun bezala, badugu behiaren buru handia eskaintzen digun irudia; hots, enararen ikuspegitik eginiko irudia; eta horrela, narratzaileak (aurretik ikusi ahal izan dugun bezala hirugarren pertsona) istorioaren nondik norakoa kontatzen digun bitartean guk enararekin batera egingo dugu bidaiari, berak bezala hegan eginez, eta bere begiek ikusten dutena ikusiz.

Istorioak aparteko intrigarik edo misteriorik ez badu ere (txoritxoaren bidaiaren kronika genuke liburuaren argumentua), liburu honek merezi du gutxienez hiru arrazoi nagusigatik: alde batetik eskaintzen dituen irudiengatik, ikusgarriak eta ikuspegi aberatsekoak; beste alde batetik Mikel Mendibil plazaratzeko aukera eskaini duelako, eta lan honen ondoren beste asko egingo dituela espero dugulako; eta azkenik, Denonartean argitaletxe txikiak, eta berak bezala sortzen ari diren beste batzuek, kalitatearen alde eginiko apustuagatik.



ZIENTZIA
IRAKURLE
ORORENTZAT



Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Orentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker urterik urte osatuz doa ZIO bilduma. Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.

gure
artean
euskaraz



BIZKAIA
BIZIA

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Bajo la sombra del miedo.

Dictadura.

Stomp.

Iraupena: 15'13".

Prezioa: biniloak 9 euro,
kaseteak: 3 euro.

Amorrua eta freskotasuna dosi txikian

ZARAUTZ-LASARTEKO talde honek freskotasuna ekarri dio Euskal Herriko punk eta hardcore eszenari. Eskola zaharreko punka, abiadura eta aspaldian ikusten ez genuen amorru eta bat-batekotasun naturala, hain zuzen ere. Partaideak Hell Division, Taosa, Pariak bail, Afonia, Iñor ez, Street Alarm eta beste-lakoetan ibiliak dira eta eskarmentua dute, baita bizipenetan ere. Ziztu bizian jaurtitako kantu hauetan gogora ekarri dizkirate AEBetako lehen punk-hard-

corea, La Perrera, Upright Citizens eta 1980ko hamarkadako hemengo punk gordinena. Beraiek, ordea, hurbilago ikusten dituzte azken hauek: Regulations, Citizens Patrol, The Vicious, Government Warning eta Direct Control, besteak beste. Diskoa 12 hatz beteko biniloan eta kasetean argitaratu dute, oso modu dotorean eta hiru disko azal desberdinekin.

<http://stomprecords.blogspot.com.es>

Dictadura

«Gutako batzuek ez diogu inoiz kaseteak entzuteari utzi, gustuko dugu formatua»

Biniloan eta kasetean argitaratu duzue lana. Berpiztu egin da kasetea?

Kasetean 100 kopia atera ditugu eta bi astetan guztiak saldu dira; gehiago aterako ditugu. Gutako batzuek ez diogu inoiz kaseteak entzuteari utzi, gustuko dugu formatua. BERPIZKUNDEA batez ere HC/punkean ematen ari da. Kantu bat lagunei kaseteak grabatzeari buruzkoa da.



ratu eta kantu berriak politikoagoak izango dira.

20 minutuko kontzertuak egiten dituzue.

Euskal Herrian taldeek denbora gehiegi jotzen dute. Horregatik, batek 20 minutu jotzen baditu, jendea harrituta gelditzen da eta gehiago nahi dute. Baina, egia esateko, hobe jendea gogoz uztea aspertzea baino.

"This is the reality". Modak, jarrerak eta halako tontakeriek ahaztuarazi

digute zergatik gauden hemen?

Modak joan eta etorri egiten dira, eta batez ere hirietan ematen dira. Zorionez Euskal Herrian jendeak ez die halako garrantzia ematen; hemengoak autentikoa goa da.

Zer gertatzen da Zarautz aldean? Hardcore-punk giro sendoa dago.

Zarauzko Gaztetxean jende asko gogor ari da lanean DIY (zeuk egizu) punkaren alde eta horri esker astero mundu osoko taldeen kontzertuak ikusi ahal dira. Ezin ditugu ahaztu Geta-riako Gaztetxea eta Trintxerpeko Mogambo ere.

"Beldurraren gerizpean".

Gure gurasoek diktadura bizi izan zuten, baina gaur egungo itzaletako asko antzekoak dira. Ez dira ikusten, baina poliki-poliki sentimendu gabeko pertsona egin gaituzte. ■



Diskoak sufrimendua, amorrua eta borroka aipatzen ditu. Autobiografikoa dirudi. Barrutik asko atera duzue?

Kantu batzuek hiru urte dituzte eta guztiak etxean eta lokalean lantzen ditugu. Hainbeste buelta emanda, ezinbestekoa da buruan dituzun gauzekin nahastea. Hitzak Lopek (gitarra) eta Juanmak (ahotsa) idatzi dituzte. Hitzek punka, inguruko kaka guztia edota kontu pertsonalak lantzen dituzte, orain ingelesa albo-

Ezpalak

JON TORNER

'Barrura begiratzeko leihoak'-en egileek uko egin diote Donostiako Udalaren diru-laguntzari

'BARRURA BEGIRATZEKO LEIHOAK' euskal presoei buruzko filma jasaten ari den jazarpen mediatikoaren aurrean, Zinez Elkarteko kideek uko egin diote Donostiako Udalak emandako 9.000 euroko diru-laguntzari eta herritarrei eskatu diete filmaren ekoizpena diruz laguntzeko (www.zinez.net webgunean eman daitezke laguntza ekonomikoak). "Filma akaso ez da denen gustukoa izango, baina eskubidea dauka egiteko eta jendeak eskubidea du ikusteko" adierazi dute Zinez Elkarteko kideek. Gainera, gogorarazi dute Gobernuak ez duela eskubiderik artisten sormen-askatasuna kontrolatzeko. Duela bi aste onartu zuen Donostiako Udalak filma diruz laguntzea, eta ondorioz PSE-EEko eta PPko ordezkariak Udaleko Giza Eskubideen Batzordea uztea erabaki zuten. Carlos Urkijo Espainiako Gobernuak EAEko ordezkariak adierazi zuen auzitara eramango zuela Donostiako Udalak. Dokumentalak 100.000 euroko aurrekontua du eta bost zinemagilek egin dute: Josu Martinezek, Mireia Gabilondok, Eneko Olasagastik, Enara Goikoetxeak eta Txaber Larreategik.

'Bertsolaritza irakaskuntzan' programa kendu dute Nafarroan

NAFARROAKO GOBERNUKO Hezkuntza departamentuak bertan behera utzi du Bertsolaritza irakaskuntza programa. Orain dela egun batzuk jakinarazi die Hezkuntza Departamentuak datorren ikasturtetik aurrera programak ez duela laguntza ekonomikorik izango. Nafarroako Bertsozale Elkartek eta Nafarroako Gobernuak 2011ko udan hiru urtetarako sinatua zuten programaren akordioa, baina Nafarroako Gobernuak ez du bete. 1997tik dago martxan Nafarroan Bertsolaritza irakaskuntza programa eta D ereduko ikastetxe publikoetan ematen da. Azken ikasturte honetan esaterako, Nafarroako 31 ikastetxetako 1.000 ikasle inguruk parte hartu dute programa horretan. Programa hau antolatzearen truke Bertsozale Elkartek 48.000 euro jaso zituen. Orain arte, Nafarroako Hezkuntza Departamentuak egitasmoa aurrera ateratzeko behar zen diruaren herena finantzatzen zuen; gainerakoa udal eta mankomunitateen diru laguntzei esker lortzen zuen Bertsozale Elkartek.

Ane Rodriguez (Donostia, 1978) izango da Donostiako Tabakalera kultur zentroko zuzendari berria, eta Haritz Azkarraga kudeatzailea. Administrazio Kontseiluak gehiengo absolutuz hautatu zituen biak. Pasa den astean egindako bozketan Eusko Jaurlaritza abstenitu egin zen. Ez bi izendapen berriekin ados ez zegoelako, baizik eta pentsatzen duelako lehentasun handiagoa duela aurrez proiektua –kultur edukiak– zehazteak. Ane Rodriguez Madrilgo Matadero kultur ekoizpen zentroaren koordinazio taldeko kide izan da azken urtean, eta lehenago ARCO azokan egin zuen lan lau urtez. Tabakalerako aurreko zuzendariak, Josean Muñozek, 2010ean dimititu zuen, Tabakalerako berrikuntza lanetarako aurrekontua murrizteko Donostiako Udalak, Gipuzkoako Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak hartutako erabakiarekin bat ez zetorrelako.

Estepan Urkiaga 'Lauaxeta'

idazle eta kazetaria (Laukiz, Bizkaia, 1905) 1937ko ekainaren 25ean fusilatua zuten Gasteizko Santa Isabel hilerrian. Armiarma webguneak bere obra gehienak jaso ditu: *Bide barrijak* (1931), *Arrats beran* (1935), poema solteak (1925-1937), poema itzuliak (1927-1931),

Poesia kaiera (antologia), ipuin eta artikulua bilduma eta antzezlanak. E-book moldean ere eskura daitezke. Armiarma gunean (<http://zubitegia.armiarma.com>) Lauaxetaren lanez gain hainbat idazlek berari buruz idatzitakoak ere jaso dituzte. Salvatore Mitxelenaren *Gorputz dago gudaria* poema (Lauaxeta fusilatua eta bi urtera idatzi zena), Gabriel Arestiren *In memoriam* (1967) eta *Ekainaren 26 egun* (1970), Bernardo Atxagaren *Lauaxeta gogoan* (1976), Ibon Sarasolaren *Lauaxeta pardoian* (1980) edota Koldo Izagirreraren *Lauaxetaren betaurrekoak*. Euskal idazle askoren inspirazio iturri izan da eta da oraindik Lauaxeta.

Koldobika Jauregi artistak (Alkiza, Gipuzkoa, 1959) Gernikako bonbardaketa ardatz duen erakusketa paratu du Donostiako Ekain galerian. Burdinazko 27 eta egurrezko lau eskulturak eta bitxi batzuek osatzen dute abuztura arte zabalik izango den erakusketa.



WWW.EUSKARA.EUSKADI.NET



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@ DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

Abarak

MIKEL ASURMENDI

Maitasuna gerra garaian

Miel de naranjas. Zuzendaria: Imanol Uribe. 01:41 mn.
Alta Producción S.L.U. (Espainia) / Fado Filmes
(Portugal). Aktoreak: Iban Garate, Blanca Suárez,
Karra Elejalde, Eduard Fernández, Carlos Santos.

ANDALUZIA. 1950eko hamarkada. Espainiako Gerra Zibilaren ondoko garai doilorra. Francisco Franco militar faxistaren lehenengo urteak dira, ezurteak. Diktaduraren aurkako erreboltaiek (*Maquis*) erresistentzian dihardute. Hauetako batzuk, legeari ihes eginak, *sierran* dabilta, frankismoak ezarritako legearen aurka altxa dira. Legalitatean ari dira ere beste batzuk. Herriguneetako bizitza “normaldu”an, erdi-klandestinitatean, gaueko lanetan. *Cencerro*, *Perdigones*, *Tomillo*. dira horietako batzuen goitizenak.

Erregimen ankerrari aurre egiteko antolatu dira, Alzamiento Nazionalari aurre egin zioten hildakoen duintasuna bizirik gorde aldera sikiera. Militar faxisten nagusitasuna erabatekoa da. Garai nahasia. Elkarbizitza gogorra da, psikologikoa nahiz fisikoa, gosete urteak izaki. Mesfidantza gailentzen da herritarren artean. Pertsonen bizitzak ez du bi sos balio. Enrique eta Carmen bikote gaztea, maitasunaren abaroan, egoera horretan moldatzen dira, itxurak itxura.

Honaino nire eskutiko sinopsia. Filmak iradoki dizkidanak segidan, bi partetan emanak:

Bizitzeak, garena garela ere, birmoldatzen gaitu. Areago, gerrak harrapatzen bagaitu, gure izatearen bilakaerak harrituko gaitu, harritu ez ezik, larritu, baita bizi eraldatu ere. Bizitza “normaldu”an hurkoa ez dugu inoiz ezagutzen, eta geure burua ezagutzea bizitza osoaren ikasgai amaigabea da. Gerran,



Iban Garate (Enrique), filmeko protagonista nagusietako bat, Karra Elejalde (Don Eladio) atzean daukala.

berriz, gure burua ezagutzeak eta gure erabakiak hartzeak areago larriagotzen gaitu. Gure erabakiak eta konpromisoak onartzeko prest egon gaitezke, larriki bada ere, baina ez ditugu besteenak berdin onartzen. Enrique eta Carmen gazteen kasua da.

Imanol Uribe eskarmentudun zinegilea da, begibistan da. Gaiak gai, gerra, kitzikagarria izaki, pantailara ekartzen jakin du. Badaki filmatzen, hots. Filma ongi birsortuta dago: ongi narratuz eta muntatuz, eszenen tempo ongi neurtuz, plano ederrak islatu ditu. Hots, kontatzen digu, hala testu nola irudi landuen bidez —laranjen ezintasuna ageriz nola—. Filmaren jarraitutasuna egokia da. Orekatua. Nekez ihes egingo diozu kontaktari. Akzioa neurritsua da eta ongi tartekatua. Aktoreek maila politetan dihardute. Esaterako, Karra Elejalde (Don Eladio) bikaina da, baina aktore horren maila ezaguna da. Iban Garate (Enrique), artean, aktore ospetsua eta zaildua izan gabe, horra bidean jarri du Uriberen *Miel de naranjas*en egindako interpretazioak.



Pantaila Globala erakusketa, San Telmo Museoan Irailaren 30era arte


Pantailaren botereak egunerokotasunaren esparru guztietan daude: zinema, telebista, ordenagailuak, telefono adimendunak, tabletak, zaintza pantailak... Eta gure bizitzatan geratzeko etorri dira.

San Telmo Museoa Zuloaga plaza, 1. Donostia www.santelmomuseoa.com

Denbora-pasak

ANA ZAMBRANO

Hitz gezidunak



Kike Amonarizen umorea

Lourdesko hotelean

Duela hilabete batzuk Lourdesko hotel batean gertatu zen pasadizo hau. Arrosak kimatzen hasi orduko biraoka hasi da lorazaina, haserre bizian:

– Ze arraio gertatu duk hemen! Hiru metro luze baditizitek-eta arrosa hauek!!

Tomateak biltzera joan, eta gero eta ozpinduago:

– Harrapazak! Tomate txikiena ere bi kilokoa duk eta!

Lorategi erdian dagoen gere-

ziona hurbildu eta:

– Hau duk marka! Gerezio honen adarrak hamar urtean baino gehiago hazi dituk urtebetean!

Lanabesak bazterrera bota eta zuzendariaren bulegora abiatu da pauso azkarrean.

– Hara, zuzendari anderea! Oso ondo iruditzen zait hotelak, urtero, Tourreko txirrindulariak hartzea; baina esaiezu mesedez ez txizarik egiteko lorategian!

Soluzioa

	L	K	A	D	I	E	G
J	U	D	K	R	S	T	E
Z	A	T	I	U	K	O	L
P	E	N	T	S	A	E	I
		B	E		U	F	N
E	H	O				E	G
O	N	I			A	D	R
D	E	N	E	O	E	A	O
H	A	S	B	E	R	A	P
	I	K	A	R	A	Z	E
M	A	I	L	A	K	E	I



ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

☎ 943 37 11 50

20170 Usurbil (Gipuzkoa)


www.atxegajauregia.com



Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Bi exoplanetaren arteko hurbiltasunak zientzialariak harritu ditu



THEEPOCHTIMES.COM

GUREGANDIK 1.200 ARGU-URTERA izar bat eta bi planeta aurkitu dituzte. Izarrari Kepler 36a izena eman diote; bere hidrogeno gehiena kontsumitu du, gure eguzkia baino milaka milioi urte zaharra goa baita. Haren inguruan Kepler 36b eta Kepler 36c planetak biraka ari dira. Lehen harrizkoa da, lurra baino 1,5 aldiz handiagoa, eta hamalau egun behar ditu izarraren inguruan bira bat emateko; bigarrena erabat gaseoso da, eta izarraren inguruko bira hamasei egunetan burutzen du.

97 egunero bi planeta horiek izugarri hurbil igarotzen dira bata bestetik, 1,9 milioi kilometro-ra. Eguzki Sisteman, konparazio baterako, planeten arteko distantziak 30 aldiz handiagoak dira.

Normalki, horrelako kasuetan planeta gaseosoak pixkanaka jan egiten ditu gainerako sistemak, baina kasu honetan ez dirudi hori gertatzen ari denik, eta zientzialariek ez dakite zergatik gertatzen den hori, hau da, nolatan hain dentsitate desberdina duten bi planeta orekan higitzen diren. Hori da argitu beharreko misterioa.



Groenlandiako marrazoa, harrapari mantsoa baina eraginkorra

GROENLANDIAKO MARRAZOEK zazpi metroko luzera izaten dute, eta 500 metroko sakoneran bizi dira. Oso mantso mugitzen dira, ez baitute 0,34 m/s-ko abiadura gainditzen, baina euren sabeletan txipiroiak eta fokak topatu dituzte. Zientzialariek ez dute ulertzen hain mantso mugitzen den animaliak nola harrapatzen dituen harrapakinak.

Susmoa bazegoen harrapakinak atzemeteko unean marrazoak abiadura azkartzen zuela. Baina hainbat aleri bizkarrean jarritako abiadura-neurgailuek ezeztatu egin dute hipotesi hori. Nola harrapatzen ditu, orduan, harrapakinak? Oraingoz frogatu gabeko hipotesi bakarra dago: lotan daudela chizatzen dituela. Fokek, adibidez, uretan egiten dute lo sarritan, hartz zuriak harrapatu ez ditzaten.



SHARKASTIC.COM



Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16

Eguraren karbono emisioak, erabileraren araberrak

Egurra erregai gisa erabiltzen denean, haren karbono guztia karbono dioxido gisa emititzen da atmosferara, baina egurra altzari gisa erabiltzean hainbat hamarkadaz gorde dezake bere barruan karbonoa.

ttiki.com/40117 (Gaztelaniaz)

Zelula bizien higadura filmatu da inoizko bereizmen handienarekin

AEBetako ikerlariek garatutako sistema baten bidez, higitzen ari den zelula bakarreko egituren irudiak lortu dira, oso bereizmen handiko mikroskopioak erabiliz. Hala, ezagutzen ez diren hainbat gertakizun biologiko ikertzen hasteko aukera izango da.

ttiki.com/40118 (Gaztelaniaz)

Agur Georges!

Galapago irlatan bizi zen Georges dortoka erraldoia hil da, eta berarekin bere espeziea desagertu da, ustez. 100 urteko animalia zela estimatu dute zientzialariek, eta azken urteotan ugalketara bultzatu izan badute ere, ez dirudi kumerik lortu denik.

ttiki.com/40119 (Frantsesez)

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Hautsaren kiratsa

URTEA JOAN eta urtea etorri gerran. Urteroko borroka. Solstizioa aitzakia, ateetan naturari gorazarre egiten dieten lizar, elorri zuri, eta lore xortak jartzen diren sasoi honetan, etxe aurreko belazean gudaldi ikaragarria izaten dugu. Alde batetik gu eta gure aitzurrak, aurkariak karduk. Haien gudarostea ia erabat *Cirsium* generokoek osatzen dute: *C. arvense*, *C. vulgare*, *C. filipendulum*, *C. palustre* eta *C. eriophorum*, besteak beste. Sailean, urte osoan etengabe, ardi, behor eta bigantxa azienda bertan larratzen da. Honek, kaka eta kaka medio, nitrogeno gaindosia dakarkio lurrari. Horixe gustuko karduek eta milaka eta milaka hazten dira. Hezetasuna ere gustuko dute eta mugako basoaren, garomenaren eta lahar-tortoen itzalaldetan bapo ugaltzen dira.

Egun luze hauek beroak izaten dira, eta urrutira gabe dugun itsasoaren brisa alferkerietan baldin bada-bil, zer esanik ez. Bi aitzur dantzan, ez jorran, edo izakitzen, edo... Dantza berezian aitzurraren ahoko alde bat kantoizka, karduk lurpean duen ipurdi lodikote moztaka kolpean ateratzeko. Ipurdi hori atera ezean bertatik berrituko da.

Aitzurra dantzatzan duen batek besteari: hau dek hau kiratsa! Zer dek hau? Ez dago sakon arnastu beharrik, bero sasoiaren loratu zaleak diren landareek usain izugarriak-erakargarriak zabaltzen dituzte. Lagunak ezagutu nahi duen usaina ere lore batena da. *Castanea sativa*, gaztainondoaren lore arrarena. Gaztainondo bakoitzak bi lore ematen ditu: arrak eta



JAKOBA ERREKONDO

Castanea sativa, gaztainondoa.

emeak. Emeak txikiak eta hostoen azpiko aldean babestuta. Arrak ikusgarriak: gerba laru luzeak multzoka eta hostaiaren gainetik kanpoko haizeetara. Arrak polena zabaldu behar du eta beti haizearen esanetara makurtzeko pronto. Polen edo lorauts horrek zabaltzen du gaztainondoaren kiratsa, berak darama... Beste arbola bateko lore emea ernaltzeko bidean lagunduko dio.

Zorrotz azaldu du lagunak lore horren kiratsa: hazi usaina du. Gizonaren hazia-rena: semena edo esperma-rena. Haize handirik ez zebilela eskerrak.



Irakurleak galdezka

Kaixo Jakoba! Aspaldidanik daukat ahuakate eder eta altu bat loreontzian sartuta. Hezur batetik hazita da eta etxean leku asko hartzen du, baita ur asko ere! Komeni da etxetik kanpora ateratzea? Hala bada, nik daukadan lur pusketa txikian ez luke nahiko eguzkirik izango, ekialdera baitago. Nora komeniko litzateke eramatea? Eta etxe barruan edukitzekotan poto handiago batetara aldatu beharko nuke? Hainbeste ur ez irensteko miraririk ba al da? Bestalde, batzuetan, hostoetan mantxa argi batzuk jartzen zaizkio, zer gaitz da? Eta amaitzeko, inoiz ahuakaterik emango al du? Arra izan al daiteke? Segi horrelaxe urte askoan eta alde zurretik esker mila!
Olga Villa (Larraul).

Kaixo Olga. Zorionak, familia hazten ari zara... Komeni da bai kanpora ateratzea. Ahuakateondoa (*Persea americana*) arbola handia egiten da, aukera baldin

badu izugarria. Metro pare batetik gorako diametroko enborra ere egin dezake... Eguzkizalea da bai, hegoa edo hego-mendebala du hemen gustukoena. Landatzerakoan handia egingo dela kontutan izan...

Loreontziko kartzelan mantendu nahi baduzu, ahal duzun handienez jarri. Hala ere txikia izango duenez urtero-urtero ahal duzun neurrian luberritu, eta udaberrirri-uda partean, hilean bitan edo, urari ongarria erantsi. Ura nahi eta nahitaezkoa du, geuk bezalaxe, eta zalea da, amorratua, tropikotik baitator...

Hostoetako orbanak eguzkiak zuzenean jotzen duelako edo loreontzian jakiren baten eskasia izango duelako izan daitezke.

Landare gehienak bezala ahuakateondoak hermafroditak dira, baina lore arrak eta emeak ez ditu batera irekitzen. Fruitua emateko urrutira gabe beste bat izatea komeni da, polinizazioa erraztuko baitu.

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

27koen klubeko lehen bazkidea

HARTFIELD (INGALATERRA), 1969KO UZTAILAREN 3A. Brian Jones rock musikariaren gorpua aurkitu zuten Cotchford etxaldeko igerilekuan. The Rolling Stones taldeko sortzaile eta kide ohiak 27 urte eta 125 egun zituen. Auzitegiko medikuaren esanetan “ezbeharrezko heriotza” izan zen, eta haren gorpuan alkohol eta droga gehiegikerien zantzuak topatu zituen. Gerora, hainbat teoria konspiranoiko sortu dira, Jones hil egin zutela diotenak, baina ez dute lortu haren kasua berriro zabaltzea.

Hilabete eskas lehenago Jonesek The Rolling Stones utziko zuela iragarri zuen, talde ezaguneko gainerako kideek hala eskatuta. Taldekide batzuk haren hiletara ere ez ziren joan, baina garaiko beste rock musikari ezagun askok omenaldiak egin zizkieten hil zenean. Esaterako, The Doors taldeko Jim Morrisonek *Ode to L.A. While Thinking of Brian Jones, Deceased* poema idatzi zion, eta Jimmy Hendrixek abesti bat eskaini zion telebista saio batean.

Bizirik zela inoizko rock bandarik garrantzitsuenetakoa sortu zuen, eta hil ondoren, ezustean, beste talde baten sortzaile izan zen. Bera hil eta urtebete pasatxora, 1970eko irailaren 18an, Hendrix hil zen. Handik bi astera, Janis Joplin, eta Jonesen heriotzatik bi urte pasa zirenean, 1971ko uztailaren 3an, haren beste lagun bat hil zen, Jim



Brian Jonesek (1942-1969) zera esan omen zuen behin:
“Bai, ospetsua izan nahi dut.
Eta ez, ez dut 30 urte bete nahi”.
Haren nahiak bete egin ziren.

Morrison. Denek 27 urte zituzten, eta, horrenbestez, 27koen kluba sortu zen. Baina hildakoak adin bera izatea azaleko aipamena baino ez zen izan garai hartan. Bi hamarkada baino gehiago igaro ziren klubak egun duen indar mediatikoa lortu arte, eta Kurt Cobain Nirvanako abeslariak eman zion bultzada hori, 1994an bere buruaz beste egin zuenean. 27 urte zituen, jakina. 27koen Klubaren kontzeptua etengabe aipatzen hasi ziren prentsan, musika aldizkarietan eta ikus-entzunezko komunikabideetan. *Merchandising* objektu bihurtu zen, liburuak eta filmak egin ziren talde bitxiaren inguruan eta bazkideen lan zaharren salmentak sustatzeko aitzakia paregabea izan zen.

Oraindik ez da urtebete igaro Amy Winehouse abeslaria klubera ate joka hurbildu zela. Handik gutxira, 2011ko abenduan, ikerlari talde batek gaia aztertu eta ondorioak *British Medical Journal* aldizkarian argitaratu zituen: rock musikariek, beren bizimodua dela eta, gazte hiltzeko aukera

handiagoa dute, baina 27 urterekin hiltzea halabehar hutsa da eta berdin hil daitezke 26rekin edo 28rekin. Hilotz eder eta gazte horiek errentagarriak diren bitartean, 27koen klubaren madarikazioa bedeinkapena izango da zenbaitentzat.



Arrastoak

Partenoia Bilbon geratuko da beste hilabete batez



BILBAOINTERNATIONAL.COM

“ATENEAREN EGOITZA. PARTENOIA” izenburuko erakusketak ekainaren 28an amaitu behar zuen, baina uztailaren 28ra arte luzatzea erabaki dute Bizkaiko Diputazioko Ondare Areto-ko arduradunek. Bilboko Berreginen Museoak 30eko hamarkadan tenplu

ezagunaren metopa, friso eta frontoietako eskulturen erreplikak erosi zizkion Britainiar Museoari, baina orain arte kopia horiek ez dira publikoarentzat ikusgai ipini. Beraz, hilabeteko tarte dago oraindik Teriklesen garaiko Atenasera Bilbotik irten gabe bisitatzeko.

Arnaldo Otegi

«Gure etsaiak Espainian daude, ez Langraitzen»

Elgoibar, 1958. Ezker abertzaleko kidea. Logroñoko espetxean dago. Espainiako Auzitegi Gorenak sei urte eta erdiko zigorra berretsi dio, Bateragune auzia dela-eta.
 “Ezker abertzalea aldarrikapen fasetik egikaritze fasera pasatu da” erran digu gutun bidez egindako elkarrizketan.

MIKEL ASURMENDI / LANDER ARBELAITZ

Argazkiak: Dani Blanco

Honezkero askotan egon zara kartzelan. Sartu-atera askorekin. Nolakoa da egun zure bizitza bertan?

Bai, orotara hamar urte egingen ditut momentuz kartzelan, beraz eta zoritxarrez —beste askok bezala— esan dezaket beteranoa naizela etxe hauetan. Hartara, bizitza kirola egingen, irakurtzen eta ikasten pasatzen dut. Bestalde, eta filosofikoki, egoera gogor hau, bi pertsonaia handik erakutsitakoarekin daramat: batetik, Nelson Mandelaren aholkuei jarraituz, neure burua ahalik eta gehien prestatzen kaleratzerakoan ikasitakoa herri askapenaren zerbitzura jartzeko, eta bestetik, Mahatma Gandhik esandakoa egunero oroitzuz: “Gobernu zapaltzaile baten pean ondratuak diren herritarrek kartzelan egon beharko lukete”.

Aldatu al dira presoek kartzelan dituzuen bizi baldintzak lehen aldiz “barruan” izan zinenetik?

1987an sartu ninduten lehen aldiz espainiar kartzela batean, eta esan dezaket termino estrukturaletan eboluzioa txarrera izan dela (sakabanaketa, bizi osoko zigorrak, onura penitentiarioen ukapena...). Hori horrela izanda, badira beste alor batzuk non gauzak “hoberantz” egin duten (bisa-bisak, telefono deiak, telebista...), baina funtsean gauzek okerrera egin dute.



2009an ARGIAK egindako elkarrizketako argazkiak dira hau eta hurrengo orrialdekoa.

Zer moduz zaudete Bateragune kasu-ko auziperatuak?

Kartzelan egonda “ongi” hitza erabili dezakegula adosten badugu ongi gaudela esan dezaket... irribarretsu eta egindako lanarekin oso gustura eta oso harro.

Estrategia politiko-militarra alde batera utzi eta ezker abertzalea bide soilik demokratikoetara bideratzea-gatik atxilotu zintuzteten orain hiru urte. Izan al zenuen beldurrik horrekin eztabaida prozesua geratzea lortuko zutela?

Beldurra baino, kezkatuak geunden, 2009ko urriaren 13ko sarekadak eztabaida prozesuaren dinamizazioaz arduratu behar genuen lantaldea bortizki kolpatu zuelako, eta horrek esku artean genuen egitasmoan eragina izan zezakeelako. Baina ez zen halakorik gertatu.

Zuek atxilotu izanak uste duzu ezker abertzalean estrategia politiko-militarra babestu zezaketenak hura alde batera uztera bultzatu zituela?

Ez. Gertaera batek modu isolatuan ez ditu normalean posizio politikoak aldarazten (gertaerak ez baditu osagai historikoak, noski) eta estrategia politiko-militarraren aldekoek bukaeraraino defendatu zituzten beraien posizioak. Azkenik, gure oinarri sozialak eta militanteek guk defendatzen genuen estrategia demokratikoaren alde egin zuten.

Uste duzu estrategia berriak ezker abertzalearen posizio politikoa indartu duela? Zertan?

Galderari sendotasunez erantzuteko beharrezkoa izango genuen ongi finkatzea zer egoeratan geunden orain dela lau urte (hori izan zen eztabaida estrategikoaren lehen gaia) eta nik bederen, garai hartan kartzelatik irten eta hainbat jenderekin hitz egin ondoren, oso diagnostiko zehatza, gordina eta gogorra egin nuen egin beharreko tokietan eta beharrezkoa zen ardura iraultzailearekin: ezker abertzalea politikoki —eta ideologikoki— amildedira eta marjinazio politikora gindaramatzen prozesu batean zegoen murgilduta. Hori zen neuretzat egoera, gure burua engainatzen ez bagenuen. Orain, aldiz, eta besteak

beste, Hego Euskal Herrian, ezker abertzaleak (zentzu zabalenean esanda) indar hegemonikoa izateko aukerak ditu (bederen termino elektoralean), baina hori baino oraino garrantzitsuagoa dena: askapen prozesua irtenbiderik gabeko bide-tik atera eta perspektiba estrategikoan jarri dugu. Hots, aldarrikapen fasetik egikaritze fasera pasatu gara. Hori da ezberdintasunik nabariena.

Espero al zenuen Gorenaren epaia?

Bai, aspalditik informazio zehatza genuen eta epaiaren nondik norakoak bagenekizkien. Beraz, gure informazio iturriek orain ere (M-11an bezala) ez digute kale egin.

“Estatuen aurrean konfrontazioa planteatuz soilik lor dezakegu lehenik bere immobilismoa gainditzea eta gerora gure helburuak erdiestea”

Urte erdi pasa da Aieteko Adierazpena sinatu zenetik. Zer balorazio egiten duzu? Guk dakigula behintzat, lehen puntua besterik ez da bete.

Aieteko Adierazpenak ibilbide orri bat planteatzen du soluziobide demokratikoaren norabidean, beraz, balorazio positiboa egiten dut. Aldi berean, pasatutako denborak argi adierazten du Espainiako Gobernuak prozesuaren blokeoa bilatzen duela eta bigarren puntuan ibilbide orria trabatu nahi duela. Horiek horrela, birgogoratu behar-ko guke gure apustuaren ezaugarri nagusietako bat aldebakartasuna dela, besteak beste, oso garbi genuelako —eta daukagu— Estatuak ez duela inongo interesik gatazka politikoari irtenbide demokratikoa emateko. Beraz, momentu honetan prozesua bilateralitasun eremura eramaten badugu, prozesua inpas-Sean dago Gobernuak eszenatoki horretan giltza duelako. Hori nola konpontzen da? Indarrak metatuz, borroka eginez eta aldebakarreko ekimenak ugarituz alor guztietan. Horrela bakarrik lortuko dugu Gobernuak dagokion ardura hartzea.

Zer garrantzia du Harremanetarako Nazioarteko Taldeak?

Aldebakartasunarekin batera, nazioartearen parte-hartzea eta konpromisoa bilatzea gure estrategia berriaren beste zutabe estrategikoa da. Zutabe horrek garrantzia handia du Nazioarteko Komunitatearen begirada Euskal Herrian pausatzen delako.

Zer iritzi duzu Brian Currini buruz eta egiten ari den lanaz?

Brian Currin aspaldi ezagutzen dut eta bere lana oso positiboki baloratzen dut.

Ezker abertzaleak posizioa aldatu izanak EAJ, PSE eta PP beren posizioak aldatzera eraman ditu. Zein uste duzu izango dela bakoitzak hartuko duen lekua?

Oraindik trantsizio egoeran gaude. Beraz, zaila da jakitea noraino helduko diren aldaketak. Ene ustez, arrazoi ezberdinengatik, hirurek kezka eta beldurrez bizi dute egungo egoera eta honek har lezakeen bilakaera. Ezker abertzaleak (eta soberanistak orokorrean) sortutako lurrikarak argipen estrategikoaren beharra sortu du ezinbestean, beraz, epe motzeko apustuak eta anbigutasun kalkuluak gero eta maniobra tarte gutxiago dute. Ondorioz, alderdi horiek berandu baino lehen beren “Zutik Euskal Herria” egin beharko dute. Eztabaida horretan ekuazio estrategikoak nola argituko diren independentismoaren indarrak erabakiko du hein handi batean.

Zer edo zertan da ETA egun zure ustez?

Euskal Herrian ireki den aro berriarekin konprometitua dagoen erakundea da ETA momentu honetan. Bere soinean ardura historikoa duena: 50 urteko zikloari amaiera ordenatu eta definitiboa ematea.

Zein pauso aurreikusten dizkiozu ETARI momentu honetan?

Ulertuko didazue pauso zehatzak ezin ditudala planteatu esaten badi-zuet, nahiz eta buruan eduki, baina pauso horiek zer filosofian egon beharko luketeen aipatuko dut: Estatuaren immobilismoari kalte

eta Euskal Herriari mesede egingo dioten urratsak egin behar dira, arduraz bai, baina ausardia osoz ere bai.

Zein da ezker abertzaleak etorkizun hurbilean duen egitekoa?

Niretzat eta termino estrategikoetan planteatuta —egunerokotasunaren zurrumbilotik aterata— bi dira egin beharrekoak: bizi dugun zibilizazio krisiaren aurrean alternatiba integrala eraikitzea alde batetik, eta bestetik martxan ditugun borroka ezberdinei (instituzionala, ideologikoa...) funtsezkoa den beste bat gehitzea: desobedientzia zibila. Azken tresna honen bidez (itxialdi, okupazio, intsumisioa...) estatuen aurrean konfrontazioa planteatuz soilik lor dezakegu lehenik bere immobilismoa gainditzea eta geroa gure helburuak erdiestea.

PPk dio ETak behar duela erabat desegin eta armak entregatu. Zergatik uste duzu dioela hori?

Etengabeko aitzakiak bilatu behar dituelako, egungo egoerari beldurra diolako, eta edozer neurri hartzeko prest da prozesua blokeatzeko. Batzuetan pentsatzen dut PPk, PSOEk eta Estatuak, oro har, gu baino argiago dutela askapen prozesua Euskal Herrian guztiz erabakigarria den fasean sartu dugula. Beraz, ETA desegiten denean ere baldintza berriak jarriko dituzte, bakeak argudio demokratikoak exijitzen dituelako, eta unionistek ez dituzte holakoak beraien arsenaletan Euskal Herriaren aldarrikapen nazionalai aurre egiteko.

Blokeo egoera honen aurrean, nola ikusten duzu ETA?

Ez daukat datu zehatzik, baina imajinatu dezaket, alde batetik, gu bezala, oso kezkatua egonen dela, baina, bestetik, gauzak lasaitasun estrategikoarekin begiratuko dituela, jakinda



“Euskal sindikalgintza ere, askapen prozesuari egin beharreko ekarpenaren inguruan bere eztabaida estrategikoa egin beharrean dago”.

azken finean azken hitza euskal herritarrok daukagula.

Zer esango zenioke Mariano Rajoyri?

Bakearen aurka eta blokeoaren alde egin duen apustuak porrot egingo duela, beraz, hobe lukeela elkarriketa eta soluzioen alde egitea. Horrela egiten badu, elkarriketarako prest gaude, aldiz, oraingo apustuarekin jarraitzen badu, bere aurretik pasatu zirenek bezala pasatuko da eta Euskal Herriak zutik jarraituko du.

Eta Antonio Basagoitiri?

Arinkeria gutxiago eta ardura gehiagorekin aritzeko, hori posible badu.

Patxi Lopezi?

Euskal Herrian ireki den egoera historikoaren aurrean garrantzitsua izan zitekeen ekarpena egiteko aukera galdu duela eta horrek jada ez duela bueltarik.

Iñigo Urkulluri?

Bere etxean babesa eman zidan PNVko militante batek esandakoa: lehenengo Aberria eta gero Alderdia.

Vocento taldeko egunkariari emandako elkarrizketa batean orain hilabete batzuk zenioen: “PPren gehiengo oso bat bake prozesuarentzat abantaila” izan zitekeela. Gauza bera pentsatzen segitzen duzu?

Bai, horrela esan nuen eta neure hitzak gaizki ulertuak izan ziren. Erran nahi nuena zera da: gehiengo absolutuak maniobra tarte oso handia ematen duela, baina aferra ez da hori. Aferra da borondatea edo interesa duzun ala ez gatazka konpontzeko, hor dago gakoa, eta egun, argi dago PPk eta bakearen aurkako agenda gidatzen dutenek gehiengo hori ere blokeoaren aldeko zerbitzura jartzen dutela.

Orain hiru urte esan zenugun ARGIAN: “EAJren ezkerretara indar metaketa egitea funtsezkoa da”. Bildu eta Amaiur horren isla dira? Amaitu al da metaketaren prozesua?

Ene ustez indar metaketa eta borroka termino estrategikoetan ulertu behar ditugu. Bide horretan, bai Bilduk bai Amaiurrek ekarpen handia egin dute, eta orain ABk ere bere indarrak gehitu ditu. Prozesu hau hasi besterik ez dugu egin, eta guztiz poztan nau ikusteak iragane-ko ika-mika eta kontraesan guztien gainetik ezkerreko independentistak frogatzen ari garen ardura eta heldutasun maila. Ez nuen gutxiago espero, eta gure herriak ere ez.

Azken urteetako hauteskundeetan Bildu eta Amaiur instituzioetara heldu dira. Nola ikusten duzu egiten ari diren lana?

Lan hori baloratzeko lehenik galdera batzuk erantzun behar ditugu, zer helburu betetzen dute instituzioek gure askapen borrokan? Nola ezaugarritzen dugu lan hori? Zer helburu bilatzen dugu gure kudeaketa edo borroka instituzionalarekin? Niretzat garbi dago, lan instituzionaletik

soilik ez ditugu gure helburuak lortuko, beraz, lan hori herri borroka-rekin uztartu behar dugu. Bestalde gure helburua eta gure erronka eremu horretan zera da: instituzioak aldaketa politiko eta sozialaren zerbitzura jartzea eta kudeaketa alternatiboa, herritarra, parte-hartzailea posible dela frogatzea. Ez da beraz, lan erraza, hasi besterik ez dugu egin. Gauza batzuk oso ongi egiten ari gara, beste batzuk ez hain ongi, aferda helburuak eta printzipioak garbi edukitzea, perspektiba ez galtzea. Nik balantze positiboa eta kritikoa ere egiten dut.

Boterean egoteak (Gipuzkoan eta Donostian) desgastea ere badakar. Nola darama hori ezker abertzaleak?

Lasaitasun osoz hartu beharrekoa izanen da gertatzen bada. Azken finean herria da gure lana baloratu-ko duena eta ondorioz saritu edota zigortuko gaituena. Dinamika honetan sariak apaltasunez kudeatu behar ditugu eta zigorrak beti ere ikasteko eta gauzak hobeto egiteko profitatu beharko ditugu.

Nola ikusten duzu ELA eta LAB sindikatuen arteko "akordio" eza?

Kezka puntu batekin bizi ditut desadostasun horiek momentu historikoak beste ardura mailak eskatzen dituelako. Egoera honetan ELAk eginiko kritikak askotan gehiegizkoak eta mingarriak izan dira. Ene ustean, euskal sindikalgin-tzak ere askapen prozesuari egin beharreko ekarpenaren inguruan bere eztabaida estrategiko propioa egin beharrean dago. Eztabaida horrek, besteak beste, sindikalgin-tzaren autonomiaren eta Euskal Herrian eraikitzen ari den bloke historiko, ezkertiar eta independentis-tarekiko mantendu beharreko ekarpen kritiko eta konprometituaren arteko oreka eraikitzaile eta ardura-tsua bilatu beharko luke.

Jose Elorrieta (ELA) eta Diez Usabiega/Arnaldo Otegiaren arteko "batasuna" edo elkar ulertzea gakoa da, bi kultur sozio-politiko historiko horien arteko akordioa beharrezkoa da, Euskal Herriak subiranotasun bidean aurrera egiteko. Subiranotasunak inoiz baino gehiago burujabetasun

ekonomikoa behar duela ulerturik ere. Ados zaude? Gauzagarria al da?

Euskaldunok gure buruari galdera hau egin beharko genioke: gure seme-alaben eta biloben etorkizuna (ekonomikoa, kulturala...) Rajoy, Aznar, Mayor, Rubalcaba, Ares... edo enparauen esku utzi nahi dugu? Alegia, Espainiako Estatua porrot ekonomiko eta politikora eramán dutenen eskutan utziko ditugu gure interesak? Hori arduragabekeria itzela da, belaunaldi berriak eta egungoak eskubiderik gabe eta pobrezia-eremuan, kultur eskas-ian eta beldurrean bizitzera kondenatzen ditugulako. Beraz, burujabetza ekonomikoa eta politikoa berreskuratzea hil ala biziko apus-tua da, eta guztiz gauzagarria, bes-teak beste Madrilgo Carlos III Uni-bertsitateak eginiko txostenean Euskal Herriaren kasuan argi frogatzen duen bezala.

"Estrategikoki ausardia gehiagoz aritu behar dugu"

Beti esan izan da ETak betirako borroka armatua utzi ostean, gizar-tea aktibatuko litzatekeela, indarra hartuko lukeela. Zantzurik ikusten duzu? Arlo kulturean, sozialean, langilerian...

Baiez eta ezetz esango nizuke eta azalduko dut: lehenik esango nuke alor batzuetan hainbat aktibazio eman direla, alor elektoralean, edota masa borroka klasikoan (Bilboko manifestazioa, grebak...), baina termino estrategikoetan ausardia gehiagoz aritu behar dugula iruditzen zait. Erran nahi dut, ezker abertzaleak ireki duen eszenatokiak dituen potentzialitateetan bete-betean sinetsi. Bestera esanda: askapen prozesua erabakigarria den fasean sartu dugunaren kontzientzia sakondu beharra dagoela sumatzen dut.

Ezker abertzaleak otsailean egin zuen *Konponbide Haizea Dator* dokumentuan egindako autokritika nahikoa da ETaren biktimei begira?

Lehenik esango nuke argi ezberdin-du behar ditugula biktimak eta beraien izenean hitz egiten duten

eliteak. Hori esanda, egindako urratsa sendoa iruditu zitzaidan. Nik oso garbi daukat biktimen kezka, beldurrak, nahiak... lehenik entzun eta bigarrenik ase behar ditugula. Horretarako zuzenean edo ez zuzenean beraiekin ere hitz egin beharko genuke, entzun beharko genituzke, eta ziur naiz dinamika horretatik denak aterako ginatekeela irabazle. Beraz, bide horretan ere ardura osoz bidea azkeneraino egin behar dugu eta eginen dugu, arduraz eta konpromisoz.

Nola konponduko da presoen gaia? Amnistiaz zer iritzi duzu?

Konponketa, Irlandan eta Hegoa-frikan bezala preso eta erbesteratu-en etxeratzearekin etorriko da, horretarako egokienak izango diren formulak bilatuz. Formula horiek noiz eta nolakoak izanen diren hiru faktorek baldintzatuko dute: herri mobilizazioak, elkarrizketak eta guk geuk (presook) planteatzen ditugun ekimenak.

Pernando Barrenak orain gutxi esan du ARGIAN "Ezker abertzaleak paus-ak eman dituen bezala norabide batean, Sortu legalizatzeko adibidez, EPPK-k ere ematea logikoa da". Zer iruditzen zaizu?

Erabakiek kolektiboak izan behar dute, baina bere egikaritzea indibidua- edo pertsonala. Oreka horretan dago bertutea.

Zer iritzi duzu Langraitz Bidea delakoaz?

Horretan ere posizioa garbia bai baina orekatua ere izan nahi dut. Beraz, ezker abertzaleak edo kolektiboak berak bide honekiko duen kritikotasun politikoa konpartitzen dut, baina aldi berean horrek ez narama bide horretan daudenak etsaitzat hartzera. Hau da: politikoki zorrotz kritikatzin ditut baina argi dut ezin garela etsaiaz tronpatu. Gure etsaiak Espainian daude ez Langraitzen.

Gaur egungo Europako krisia, eta horren barruan Espainiako krisi ekonomiko larria, zein neurrian da Euskal Herriko asmo independentistenta lagungarria? Edo alderantziz da? Zer aukera daude?

Espainiako Estatua interbenitua eta lur jota dago. Lehen bere bideragarritasun politikoa zalantzan bazegoen, orain bere bideragarritasun ekonomikoa ere zalantzan dago, beraz gure aukerak handitu egiten dira, eta hori aprobatxatu beharrean gaude, betiere gure burujabetzaren aldarrikapena espainiar sektore zapalduetik mantendu behar dugun elkartasunarekin orekatuz. Hori egin ezean sektore zabala horiek gure aldarrikapenak insolidarioak bezala ulertu ditzaketelako, eta egun sentimendu horiek manipulatzeko errazak direnez, gure aurka bilakatuko liratekeelako. Hori esanda, aukeren inguruan gure kezkak argitu nahi baditugu Eskoziara begiratzea besterik ez dugu.

Sei urte eta erdiak kartzelan egitea espero duzu, ala uste duzu lehenago aterako zarela?

Soilik herri borrokak, elkarrizketak eta preso gaudenen ekimenak erantzun dezakete galdera hau.

Ezker abertzaleko lehendakari-gaia kartzelan mantendu nahi izan dutela irakurri dugu orain gutxi. Zer diozu?

Estatuak momentu honetan helburua garbi du: ezkertiar independentistok EAEko hauteskundeak ez irabaztea. Eta horretarako neure hautagaitza arriskutsutzat zeukaten eta kondenatzea erabaki zuten... eta zentsua (marokorrek Saharan bezala) aldatu behar badute saiaturiko dira zalantzarik gabe. Honek guztiak bi gauza mahai gaineratzen ditu: bidea oztopoz beterik daukagula eta prozesua (Estatuarentzat garbi!) erabakigarria den fasean dagoela.

Zer-nolakoa behar du ezker abertzalearen lehendakari-gaia?

Herriak nahi duen bezala: argia, prestatua, apala, irekia, tolerantia, sektore guztien errespetua irabaziko edo irabazita duena. Urola bailaran esango luketen bezala: naturala.

Posible ikusten al duzu EAJrekin batera, autodeterminazioaren ideiak batuta gobernatutako Eusko Jaurlaritza?

Ene ustez datorren gobernuak bi erronka ditu: bakea egonkortu eta krisiari irtenbide justu eta herrikoia bilatzea. Hortik gaurdi ere aurreikuspen bat egingo dizuet: bai krisi ekonomikoak edota Estatuak har ditzakeen erabakiak (errepresiboak, inposatzaileak...) emergentzia nazionalako eskenatokiak ekarri ditzake. Horri ere aurre egiteko prest egon behar dugula uste dut.

Nafarroa izan zen aurreko negoziatio prozesua hausteko arrazoietako bat. Zein da Nafarroarekiko duzun jarrera?

Nik Nafarroa den bezalakoa maite dut, beraz, guztiz errespetatzen dut. Hortik abiatuta oso argi daukat Euskal Herria eraikitze prozesuan zer egin, noiz eta nola erabakitzea nafarrei soilik dagokiela. Ez daukat zalantzarik gehienak gurekin bat egingo dutela bide horretan.

Aurrera begira, zer hobetsiko zenuke, balizko EAren independentzia, edo EAE eta Nafarroaren autonomia bateratua?

Hau da besteak beste independentistak garenontzat galdera estrategiko bat, beldurrik gabe planteatu beharrekoa. Nik neure iritzia emanen dizuet: ez naiz ados Nafarroarik gabeko independentziarekin. Eta bigarrenik ene ustez "autonomia"ren fasea guztiz gaunditutzat eman behar dugu independentziaren bidean (Hegoaldeaz ari naiz). Egun neuretzat "autonomia"n ezin dugu oinarritu Estatuarekin hipotetikoki lortu dezakegun gatazka politikoaren irtenbidea. Eta hor gelditzen naiz. Besteak beste, autonomia ez bada, zer estatus proposatzen dugunaren galderaren inguruan ere eztabaida estrategikoa burutu behar dugulako. ■



VITORIA GASTEIZ

Gasteizen euskarazko hauek ez galdu

DIBERTIKALE

HIPO ETA TOMAX
DINBI DANBA
JUDIMENDI (Sefarad plaza)
Uztailak 9, 19:30

UPI!!
XABI LARREA
Arriagako GEaren ondoko
oinetakoentzako kalea
Uztailak 11, 19:30

ZIRIKA ZIRKUS
DANTZATEKE
Konstituzio plaza
Uztailak 12, 19:30

TXANTXETAN
TXAN MAGOA
Abetxukuko kiroldegaren
Aurreko plaza
Uztailak 13, 19:30

PARRANDA-TUTIPLEN
AZKONA TALDEA
Ibaiondo GEko plaza
Uztailak 16, 19:30

UZTAILEKO ETA ABUZTUKO OSTIRALAK

BAPATEAN ZIRKU GALA
Andre Maria Zuriaren plaza
Uztailak 20, 20:30

EZ ZUTEN NIK IKUSITAKOAK KONTATU
Andre Maria Zuriaren plaza
Abuztuak 25, 21:30

SANTIAGO ETA GASTEIZKO JAIK

>DANTZALDIAK, MUSIKA ETA KONTZERTUAK

ARKA PLAZA
JOSELU ANAIK
Uztailak 25, 23:00

AIHOTZ PLAZA
VENDETTA
Abuztuak 5, 00:00
MIKEL URDANGARIN
Abuztuak 6, 00:00

MIKEL MARKEZ ETA ERRAMUN MARTIKORENA
Abuztuak 7, 00:00

ERATU
Abuztuak 8, 00:00
Egunero bertsoak, dantza-plaza...

FORU PLAZA
ESNE BELTZA
Abuztuak 7, 00:00

Maite duzun hura, euskaraz!



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Zinemaren Legea Katalunian

Filmen %97 dira gaztelaniaz

Kataluniako zine aretoetan filmak gaztelaniazko bertsioan daude. %3 dira katalanera bikoiztu, katalanez azpigitulatu edo jatorriz katalanez direnak. Legeak dio 2018. urterako film emanaldien erdiak katalanez izan beharko duela.

ONINTZA IRURETA AZKUNE

KATALUNIako ZINEMAREN LEGEAZ jaso dugun azken albisteak bitxia da. Legea (2010ekoa) katalana babesteko egin zen eta Europar Batasunak esan berri du legeari aldaketaren bat egin beharko zaiola, gaztelaniaren alde egiten duelako. Izan ere, gaztelaniaz egindako filmak ez dira derrigorrez katalanera bikoiztu edo azpigitulatu behar. Bai ordea, Europako beste hizkuntzetan egindakoak.

2010eko Zinemaren Legearen arabera, 2018rako, zine aretoetan filmak saioen erdiak katalanera bikoiztuta edo katalanez azpigitulatu eskaini beharko dira. Kuotak eta isunak aurreikusi ziren lege-hausleentzat. Hautsak harrotu zituen legeak; film banatzaile eta erakusle estatubatuarrak aztoratu ziren eta PP eta Ciudadansen orbitakoek, katalana inposatzen ari zirela salatu zuten. Europar Batzordearen arabera, Kataluniako Zinema Legeak lehia askearen kontra egiten du, Europako beste hizkuntzetan dauden filmak katalanera itzuli behar direlako –bikoizketek 25.000-77.000 euro artean balio dute eta azpigituluek 2.000-5.730 euro artean–.

Plataforma per la Llengua, katalanaren



Plataforma per la Llengua kanpaina bat baino gehiago egin du zine aretoetan katalanez pelikulak ikusteko.

lanaren aldeko mugimenduak, Europako Batzordeari erantzunez, bere proposamena egin du: gaztelaniazkoek izan dezatela Europako beste hizkuntzetan egindako filmak dituzten baldintza berak, alegia, gaztelaniaz egin diren pelikulek ere eskaini ditzatela saioak katalanera

bikoiztuta edo azpigitulatu. Legeak dio Ipar Amerikatik datozen filmeen emanaldi erdiek katalanez izan beharko dutela eta Europar Batasunekoek 16 kopia baino gehiago banatzen dituzten filmak kasuan baino ez. Plataformaren proposamena da gaztelaniaz egindako filmak zaku horretan sartzea. Orain, Espainiako Gobernuak proposamena egin beharko du, Europar Batasunaren eskakizunari erantzuteko.

Filma ikusteko erromesaldia

Zinema Legeari lotutako azken albiste hau ordea, seguruenik, anekdota baino ez da izango, ez baita espero Legearen beste ezer ukituko dutenik. 2010ean Legea onartzea pauso inportantea izan zen katalanarentzat. Garrantziaz jabetzeko nahikoa da pare bat portzentaje begiratzea: 2010ean egindako azterketaren arabera,

Kataluniako zine aretoetan eskaintzen ziren film saioen %3 ziren jatorriz katalanez, katalanera bikoiztutakoak edo katalanez azpigitulatuak. Legea betetzen bada, 2018an film saioen %50 katalanez izango da.

Plataforma per la Llengua katalan

lanez filma ikustea ikaragarri zaila dela erakusteko kanpaina umoretsua dauka egina. *El cinema en català*, *Mission impossible* du izena kanpainak eta familia bat ageri da filmeren bat katalanez ikusteko gogoz. Bartzelonako karteldegia begiratu dute: 179 areto, 252 film, katalanez bakarria baino ez. Bartzelonan errazagoa da filmak ingelesez edo frantsesez ikustea katalanez baino. "Arrakasta" ikusita Reusera (100 km) joatea pentsatu du familiak. Alferrik abiatu dira, han ez dute pelikula bakarria ere eskainiko katalanez. 15 kilometrorra dagoen Tarragonara joatea erabaki dute. Han bai, han zorioneak dira: 22 aretoen eta 30 pelikulen artean film bat katalanez eskainiko dute.

**Familiak Bartzelonako
karteldegia begiratu du:
179 areto, 252 film,
katalanez bakarria**

Horrelakoa da gaur egungo egoera, film gutxi, areto eta kopia gutxi, eta geografikoki gaizki kokatuta. Ordutegiak ere hala-moduzkoak.

Katalanak prentsa idatzi, irriti eta telebista katalanez kontsumitzeren ohitura daude, baina zinema erabat gaztelaniaz ezagutu dute. Ohitura aldaketa nola gauzatu den galdetu diogu Plataformako Gemma Ponsari: "Balizko ikusentzuleak badaude eta eskaera ere bai. Beste kontu bat da katalanek aretoak beteko dituzten ala ez. Esan nahi dudana da, katalanezko eskaintza ez dagoela normalizatua eta gerta daiteke orain dauden eskaintza zehatz eta gutxi horiek ez betetzea".

Diru-laguntzak banatzaileei?

Zinemaren Legeak 117 aldeko boto eta kontrako 17 jaso zituen parla-

Europako eta Ipar Amerikako hainbat herrialdetan, estatu eleanitzetan, berariazko legeak edo neurri politikoak dituzte zinean hizkuntza erabilera kudeatzeko. Hiru adibide aipatuko ditugu:

Finlandia: Zinearen Fundazioak (Kultura Ministerioaren barne) ezarria duenaren arabera, filmak Finlandiako hizkuntza ofizialetan azpitolatua egon behar du. Beraz, filmaren kopia bat baino gehiago zabalduko badira, finlandieraz eta suedieraz emango dira, beti. Finlandian suedieraz mintzatzen den 300.000 biztanleko hiztun komunitatea bizi da.

Letonia: Hizkuntza ofiziala letoniera da, baina biztanleriaren zati handi baten lehen hizkuntza errusiera da. Filmak estatuko hizkuntzan azpitolatuta edo bikoiztuta eskaini behar dira, alegia, letonieraz. Bi hizkuntzatan azpitolatzea ere onartuta dago. Horrela eginez

gero, letonierazko azpitoluak lehen lerroan jarriko dira, eta ezin go da beste azpitoluluko hizki tamaina baino txikiagoa erabili, ezta bestean baino eduki gutxiago itzuli ere.

Plataforma per la llengua elkar-teak esku artean dituen datuen arabera, Katalunian, jatorriz katalanez daudenek, katalanera bikoiztutakoek eta azpitolatutakoek, filmaren %3 baino ez dute osatzen. Antzeko hiztun kopurua duten komunitateekin alderatuz gero, Europan eta Ipar Amerikan diskriminazio hau bakarria dela dio elkar-teak.

Quebec (Kanada): Quebecen frantsesa bertako hizkuntza eta hizkuntza ofiziala da. Ingelesa hizkuntza ofiziala da Kanadan. Quebecoko Zinemaren Legearen arabera, filma frantsesez erakutsiko bada ez du inolako baldintzarik bete behar, baina ingelesez bada frantsesera itzuli behar da.

mentuan. Gizarteak ere ongi-etorria eman zion Legeari. Gemma Ponsaren ustez, Legea oso positiboa eta beharrezkoa da. Bestalde, oso ohiko legea ere bada, antzeko hiztun komunitateak dituzten hainbat herrialdetan horrelako legeak badi-tuztelako (ikus koadroa). Plataformak bi kontu kritikatzeko dizkio Legeari. Batetik, ez dago araudirik, eta beraz, adibidez 2018ra artean urtero katalanaren hedapena zenbatetako izango den ez dago zehaztuta. Legea ez bada betetzen ezarriko diren zigorrak ere ez daude aurreikusita. Bestetik, Plataformak ez du ulertzen Generalitateak atzerriko film banatzaile eta erakusleak diruz laguntzea (1,4 milioi euro) filmak

katalanez eskaintzeko. 2011ko irail-lean Generalitateak hitzarmena sinatu zuen enpresa estatubatuarrekin, Legea ez betetzeko mehatxua eginga baitzuten. Ponsaren ustez, "gauza bat da diru-laguntzak ematea jendea zinera pelikulak katalanez ikustera joan dadin, eta beste bat da, laguntzak enpresei ematea. Ez al dute bada derrigorrezkoa? Ez al dute bada legea bete behar?". Ponsak uste du urteen poderioz zine aretoetako egoera normalizatuko dela, jendea ohituko dela pelikulak katalanez ikustera eta film erakusleek bere gain hartuko dituztela bikoizketa eta azpitolatze gastuak. ■



Babeslea: IVAP

"IVAPen misioa da Euskadiko Herri Administrazioetako pertsonak eta antolakuntza hobetzea, administrazio eraginkorragoa, efizienteagoa eta elibiduna lortzeko asmoarekin, eta zerbitzu publikoko zenbait balio komun oinarri hartuta. Horretarako, honako hauek egingo ditu:



- Euskadiko Herri Administrazioen zerbitzura dauden langileei etengabeko prestakuntza eman eta langileak hautatu.
- Euskararen erabilera administrazioan normalizatu dadin sustatu.
- Itzulpen ofizialak eta lege- eta administrazio-erloko euskarazko terminologia.
- Hizkuntzari, legeari eta antolamenduari buruzko aholkularitza, eta antolaketa eta kudeaketaren inguruko ikerkuntza."



'Euskara Jendea' dokumental sorta errodatzen ari dira

SEI DOKUMENTALEKO seriea ari da ekoizten Ibaizabal Mendebalde Kultur elkarteak, Zenbat Gara kultur elkartearen laguntzarekin. Dibulgaziozko dokumental sorta izango da *Euskara Jendea* eta Xamarrek 2006an argitaratutako izen bereko liburua du oinarri. Liburuan, euskaldunen hiztun komunitatearen historiaren ildo nagusiak azaltzen ditu Xamarrek. Hasi historiaurretik eta gaur egunera arte, hainbat herri, hizkuntza eta kulturarekin bizi arren, gaur arte bizi-

raun duen hizkuntzaz eta hiztunez ari da Pamielak argitaratutako liburua. Ikus-entzunezkoak mami horri heldu dio eta publiko zabalarentzako ekoizpena izan nahi du. Euskal Herriko eta atzerriko hainbat txokotako irudiak, berariaz grabatutako dramatizazio txikiak eta ilustrazio eta grafikoak ari dira erabiltzen.

Lan talde nagusia ondokoek osatzen dute: Xamar, Mikel Arredon-



Dramatizazioak ere ari dira grabatzen 'Euskara Jendea' dokumental sortarako.

do, Hibai Castro, Adur Larrea, Lutxo Egia, Lon Fernandez eta Maria Uriarte. Urte eta erdi daramate aipatu berri dugun taldeak eta kolaboratzaile sareak lanean.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Finantza entitateak garbitzea

Funts milioidunekin salbatu nahi den Bankiaren kiebrak –PPren finantza ikurra– mahai gainean jarri du berriz ere zer egin behar ote den kaudimenik ez duten erakunde finantzarioekin, Espainiako Estatuko beste entitate ugari egoera berean egon baitaitezke. PPrek Gobernuak proposatzen duen irtenbidea da entitateak funts publikoekin salbatzea, hau da, zergadunen diruarekin. Baina zergadunek ez dute zerikusirik entitateen gestio kaskarrarekin, ezta politikari askok izan duten arduragabekeria larriarekin ere. Politikari horiek “kolokatuak” izan ziren euren alderdien eskutik –batez ere aurrezki kutxetan– eta probetxua atera zioten egoerari, indemnizazio eta pentsio milioidunak segurtatuz. Batzuetan nazionalizatu egin nahi dira, galerak sozializatzeko, eta etorkizunean etekinak dituztenean, berriz ere jarduera pribatura eramateko. Ohiko kapitalisten filosofia da, eta euren gobernuena ere bai: interbentzio ekonomikoaren kontra daude, baina euren entitate finantzarioak salbatzearen alde dira, zergadunen diruarekin noski.

Irtenbidea, kaudimenik gabeko finantza entitate horiek garbitzea behar luke izan, eta kudeaketa horren arduradunak depuratzeko, berdin politikoak nola penalak. Akzionistek eta inbertitzaileek galerak onartu beharko lituzkete, entitateen kudeaketa negargarria zergadunek ordaintzea saihesteko. Badaude nazioarteko erakundeak, Nazioarteko Ordainketa Bankua kasu (BIS), esaten dutenak finantza sistemaren egituraren funtsezko aurrerapena egingo dela baldin eta “entitate handiei kiebra jotzen uzten bazaie zergadunek ondorioak jasan behar izan gabe”. Ikuspegi antikapitalistatik begiratuta hobe litzateke banku horien guztien eta sektore estratagikoen nazionalizazioa. Hori, ordea, beste kontu bat da!

Juan Mari Arregi



Itzultzaile automatikoari atarramentua

OTSAILAREN 28AN aurkeztu zuen Eusko Jaurlaritzak gaztelania-euskara itzultzaile automatikoa. Jakina, itzultzaileak ez du itzulpen perfektua egiten, baina probak egiten has-teko eskura jarri zuen Jaurlaritzak. Hilean-hilean gero eta gehiago erabili da itzultzailea, eta maiatzean adibidez, 335.190 dokumentu eta 29.948.918 esaldi itzultzeko eskatu diote makinari erabiltzaileek. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza itzultzailea smartphone eta tabletetan erabiltzeko prestatzen ari da.

Orain, Itzulpen-memorien Banku Publikoa garatzen ari da HPS, eta litekeena da urte amaiera alderako erabilgarri egotea. Banku horretan gizakiek egindako itzulpenak daude eta hurrengo pausoa litzateke itzultzaile automatikoarekin uztartzea. Horrela, erabiltzaileak itzuli nahi duen testua sartzen duenean makinan, lehenengo itzulpen-memorien bankuan arituko da xerka eta han aurkitzen ez badu, itzultzaile automatikora joko du.

Itzultzaile automatikoak, oraingoz, gaztelania-euskara norabidea egiten du eta 2013an euskara-gaztelania eta ingelese-euskara noranzkoak egotea espero da.

Elkarbizitza, aztertu sei puntu hauekin

BIKTIMEN gaia gero eta sendotasun handiagoz dago agenda politikoan, eta gero eta modu orekatuagoan gainera. Glencreeko esperientzia da orain arteko iparorratza, eta herritar arruntok ikasgai itzela eman diguna: haiek gai badira elkarren artean enpatiaz jardun, elkar ulertu eta elkarrekin ondorio oso argiak gizarteratzeko, horrek erakusten du horrenbeste sufritu ez duten gainerako herritarren arteko elkarbizitza eskura dagoela. Horretarako boron-daterik badago behintzat.

Garrantzitsuena da biktimen gaia dagokion lekua hartzen ari dela apurka. Bi esparru garrantzitsutan mugimendu interesgarriak izan dira: batetik, ezker abertzaleko hainbat alorretan onartzen ari da bere esparrutik egindako mina, eta honek aitortza eta erreparazioa behar dituela; bestetik, Estatuaren gehiegikerien biktimak batzuei ere onarpen maila bat ematen ari zaie, batez ere EAEko instituzioen aldetik.

Eremu batean zein bestean asko geratzen da oraindik, zalantza barik. Ezker abertzaleak denbora gehiago eta jarrera sakonagoa beharko du, ETaren biktimek bere aitortza egiazkoa dela sinets dezaten. Estatuak, biktimak mota askorekiko aitortzaren atea ireki ere ez du egin oraindik: torturatuak, hain-

bat koloretako poliziek urte luzez zauritutakoak, presoak eta haien senitartekoak, ETaren aurkako borrokan egindakoak... Areago, gaur egun, euskal gatazkaren parametroetan, Estatuak giza eskubideak zanpatzen dituen bakarra, batez ere presoan esparruan.

Glencreekoak gai badira elkarren artean enpatiaz jardun, elkar ulertu eta ondorio oso argiak gizarteratzeko, horrek erakusten du herritarren arteko elkarbizitza ere eskura dagoela

Orain hobeto uler litezke Jonan Fernandezek 2011ko urtarrileko LARRUNEN idatzitako "Berradiskidetzeta: baldintza etikoak" artikuluko osagaiak, besteak beste, aipatutakoak indarrean jartzen ari diren kontzeptuak direlako eta horietako asko, poliki bada ere, gauzatzen ari direlako. Gatazken konponbidea eta biktimen gaiari sendotasunez heltzeko sei oinarritz hitz egiten da lerro haietan:

1. Oinarria elkarrenganako errespetu eta aitortza dago.
2. Subjektua gizartea da, garrantzi-

tsuena berradiskidetzeta eta bizikidetzeta dira, eta biktimak prozesu horren onuradun dira.


3. Zeintzuk dira helburuak? Biktimen erreparazioa, humanizazioa eta adiskidetzeta.
 4. Nola lortu? Estrategia: begirada berri bat iraganari, orainari eta geroari.
 5. Iraganeko begirada, printzipio nagusi batzuk: sufrimendu guztiak aintzat hartu behar dira, iraganarekiko begiradak zorrotza izan behar du, baina hainbat interpretazio egongo dira; halakorik "inoiz gehiago ez" ideia nagusitu behar da.
 6. Oraina begirada eraikitzailez eta enpatiaz landu behar da. Errespetua eta onespena giltzarri dira, barkamenak borondatezkoa izan behar du eta berriro halakorik ez gertatzeko konpromisoa sendoa.
- Puntu horiek izaten dira edozelako gatazketan biktimak eta bizikidetzeta kontuak bideratzeko oinarriak. Biktimen inguruan izaten ari diren hainbat ekimen edo etorkizuneko bizikidetzari begira zer ari garen egiten aztertzeko, interesgarriak izan daitezke aipatutako sei puntuak. Egin frogak eta ekin ariketari.



**XXIV. Rikardo Arregi
Kazetaritza Saria** 2012

Sari Nagusia: Karlos Zurutuza
Epaimahaiaren Sari Berezia: Beranduegi
Kazetari Berria ataleko saria: Miren Garate
Ohorezko Aipamena: Mattin Larzabal
Aipamen Berezia: Sautrela

Andoaingo Udaleko Euskara Zerbitzua
943 300 831 • euskarazerbitzua@andoain.org • www.andoain.org



Fukushima 4: egin dezagun otoitz erori ez dadin

Hiru urte beharko dituzte Fukushima Daiichiko laugarren erreaktoarearen piszina uretan dauzkaten erregaia ateratzeko. Tartean, Japonian ezohikoa ez den 7,5eko lurrikara bat ez luke gaindituko osorik, orain arteko hondamendia txiki utziaz. Japoniak bere izatea jokatzeko piszina horretan, baina munduak ere bai.

IRAKURLE HORI: BARKATU MIKAZTEA opor aurreko festa giroa Japoniako albiste kezkarri gehiagorekin, baina ez duzu sinetsi behar Fukushimakoa konponduta dagoenik. Alderantziz, orain arteko hondamendi nuklearrak txiki utziko lituzkeen arriskupean bizi da Japonia, eta honekin planeta.

Beharrik badirela munduan berri biltzaile boluntarioak, haiei esker jarraitu dezake irakurle burutsuak hedabide nagusiek beren agendatik kanporatutako aktualitate beroa. Euskaldunarentzako, esate baterako, ingelesez edo japonieraz sortutako materialak frantsesera itzultzen dituzte *Veilleurs de Fukushima* (Fukushimaren Zaintzaileak) taldean koordinatutako blogak. Ezagunena *Fukushima-over-blog* izango da. Kna sinatzen duenarena da beste bat, japonierazko bideo esanguratsuenak frantsesez azpititulatzen dituenak.

Knari esker ezagutu dezakegu TV *Asahi* telebistak maiatzaren 25ean eskainitako *Hondo Station* programa: "Arrisku berri bat aurkitu da Fukushima 4n". Hona laburpena.

Fukushima Daiichiko erreaktoreetan laugarrena hutsik zegoen istripuaren egunean, baina goiko aldeko piszina zeuzkan eta dauzka uretan hozten, bestelako babesik

gabe, 264 tona erregai usatu erradioaktibo. Urtegiari eusten dion egitura arras hondatuta dago, 2011ko martxoko lurrikararen eta ondorengo leherketa eta suteen ondorioz. Eraikina egonkortu eta bertatik erregaia segurtasunez ateratzeko hiru urte kalkulatu ditu TEPCO konpainiak, 2014ko bukaera.

Lehen galdera: eutsiko ote dio egiturak? Inork ez daki, hala argitu dio *Hondo Station* programari Toshi-barentzako zentral nuklearren diseinuan lan egin duen Masashi Goto ingeniariak. TEPCOk kalkuluen emaitzak aipatzen ditu beti, baina daturik ez du ematen, eta horrela ezin jakin leherketen eztandak bezala sutearen beroak zenbateraino kaltetu dioten hezurdura Fukushima 4ri.

Yukiteru Naka da Tohoku enpresaren bidez Fukushima beste erreaktoreak desmuntatzeko lanen arduradunetako, iturgintza kontuetan batik bat. Tohokuren behargin asko ezin da jada lekura hurbildu, urteko erradioaktibitate kopurua gainditu duelako.

Nakari aurpegian ere igarri zaio kezka larria. "Esan beharra daukat 4. unitateak arriskua daukala. Piszi-na gaur hozten duten sistema probisionala da eta ez dago prestatuta lurrikara handiak soportatzeko. Mantenimendua ez da aski ona,

Issei Katoren argazki honetan (guk *Cryptome* gunetik eskuratua) nabarmen ikusten dira Fukushima Daiichiko 4. unitatearen eraikinak jasandako kalteak. Lurretik 30 metrotara daude uretan hoztuta urteotan erreaktoreak erabili dituen 264 tona erregai, oraindik oso arriskutsuak. TV *Asahi* katearen *Hondo Station* programan 4. unitatearen inguruan adituek azaldutako kalkulu beldurgarriez galdetzeko ekarri zuten Shinichi Sano idazlea. Haserre azaldu da TEPCOk arduradunek informazio hauen aurrean erakutsitako ezaxolarekin: "Indiferentzia hori da ikaragarriena, hotzikarak eragin dizkit". Gero galdetu diote ea nazioarteko laguntzarik behar duen Japoniak: "Ez da disputa zozoentzako astirik, zerbait gertatzen bada ez da izango bakarrik Japoniaren azkena, behar bada munduaren akaberaren hasiera ere izanen da".

hodiak zakarren artetik doaz. Tubo-
ok hondatuko balira, piszina azkar
hustuko litzateke eta inor ezingo
litzateke hona hurbildu. TEPCOk
eta Gobernuak berehalako krisi
baterako prest egon behar dute,
esan beharra daukat. Piszi-na husten
bada, langileak ez bakarrik 4.
erreaktorera, beste hiruetara ere
ezingo dira hurbildu".

Kyotoko unibertsitatean nuklea-
rrean ikertzen duen Hiroaki Koidek
arrisku bera azpimarratu du: lurri-
kara handi batengatik 4. unitateko
piszi-na hondoratuz gero, hango
erregaiek sututa airera isuriko lukete
Hiroshimako bonbak halako 5.000
erradioaktibitate.

Mundu osoaren ardura

Prest al daude Japonia eta mundua
bi urte gehiagor arrisku larri hone-
tan bizitzeko? AEBetan Energia
departamenduaren aholkulari izan-
dako Robert Alvarezek dioen
moduan horrelako istripu berri
batek airera jaurtikiko balu Txernoby-
lek isuri zuen 137 zessio guztia hala-
ko hamar, ez al du munduak esku
hartu behar? Japoniak bakarrik
arduratu behar al du larrialdiaren
kudeaketaz, gainera TEPCO kon-
painiaren esku lagata?

Datozen bi urteotan ez bada ger-
tatzen 7,5eko lurrikararik, 4. unita-
teko piszi-nako 1.535 erregai mul-



Barearen paraje haietan. 4. unitateko eraikinaren egoerari dagokionez, kualifikazio handiko adituek, Gundersenek, Koidek, Alvarezek eta beste, diote horrelako beste bat nekez jasango lukeela.

Piszinak metaturiko erregaiei erradioaktibitate kopurua izugarria dela ere askok aitortu dute. Hiroake Koidek Hiroshimako bonbaren halako 5.000 aipatu du, azpitik jotzen duela aitortuz. Alvarezentzako, 4. unitateko piszina dagoen zesioa da Txernobylek isuritakoaren halako hamar eta Fukushima Daiichiko erregai guztietakoa batuta Txernobylekoa bider 88. Gundersenek dio 4. unitateko piszinak daukala orain arte munduan egin diren leherketa nuklear guztiek isuritako guztia adina zesio. Honen ustez hori sutzeak bitan zatituko luke Japonia, erdian eremu kutsatu zabala utziaz.

Erregai horien kontrolerako lanen handia honela azaldu du Alvarezek: “Ez da pentsatu behar erregaiok grua batekin edozein zama gisa atera ahalko direnik. Irradiazio bortitzak, suteak eta leherketak saihesteko, edukiontzi berezi eta isolatzaileetara (*dry cask*) eramane behar dira, han blindaturik urpean atxikitzeko. Horrelakorik inoiz egin ez denez, Fukushima Daiichiko piszinetan dagoen erregai usatua berreskuratzea lurralde ezezagunetan ibiltzea bezalakoa izanen da, ahalegin handia eta denbora eskatuiko ditu”.

Ez ahaztu Fukushima, eta batik bat ez begirik kendu 4. erreaktorearen eraikinari. ■



tzoak atera ahal izango dira, Fukushima hondamendia utziz orain arteko larritasun mailan. Baina aldearantzizkoa suertatuz gero, terremotoak 4. unitateko eraikina gehiago hondatu, erregaiak urik gabe geratu eta kutsadura masiboa zabaltzen bada, honako gertakizun katea aurreikusten du Pierre Fetetek:

- Fukushima Daiichiko gune osoa ebakuatu beharra, mantenimendurik gabe utziz 6 erreaktore, 7 piszina eta 2.400 tona erregai erradioaktibo.
- Epe laburrean, 12 kilometrotara dagoen Fukushima Daiiniko 4 erreaktore beren 4 piszinekin ebakuatu beharra.
- Ebakuatzeak esan nahi du bertan behera uztea makineria horien guz-

tien kontrola. Zein adituk aurrikusi lezake 10 erreaktore eta 11 piszina-tako erregaiek isuri lezaketan erradioaktibitate kopuru ikaragarria?

- 130 kilometrotara Tokai eta Onagawako zentralak daude, 4 erreaktore eta beste hainbeste piszina. Zer gertatuko litzateke horiekin tamaina horretako istripuan?

- Japoniaren erdia, iparraldekoa, ebakuatu beharra, tartean Tokyo hiriburua.

Pierre Fetetek ez du jazoko denaren pronostikoa egin, abisua eman du gerta litekeenaz, hipotesirik gaiztoena marraztuz. Hipotesirik txarrrena, baina tamalez ezinezkoa ez dena.

Hasteko, 7,5eko lurrikarak ez dira hain gutxitan gertatzen Itsaso





**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

Iñaki Mendiguren

Krisia eta bizi-poza

K

risi honetatik ez gara aterako konbertitzen ez bagara” esan zuenean Roucok, pentsatu nuen bere etxeko krisiaz ariko zela (Vatileaks: botere-borrokak, negozio ilunak... gehi teologia zaharkitua, pederastia eta abar). Baina, ez; orain bereziki Europan nozitzen ari garen finantza, ekonomia eta politika arloko krisiaz ari zen Rouco. Eta ondo pentsatuta, baliteke zuzen ibiltzea. Baliteke bihotz-berrikuntza edo gogo-aldaketarik gabe honek ez izatea irtenbiderik.

Ustekabeko krisi asko izaten da bizi-tzan: lanpostua galtzea, harreman-gatazkak, gaixotasunak eta heriotzak... Baina, gerrarik pare-parean jasan ez dugunok ez dut uste geure bizitzan egungoa bezalako krisialdi sozio-ekonomiko luze eta sakonik ezagutu dugunik Europako alde honetan: inguruan gero eta jende gehiago lanik gabe; seme-alaben etorkizuna ilun; erretiro adinera hurbildu direnek, horretarako uneaz nahiz sariaz egindako kalkuluak zalantzan; aurrezkiak dituztenek, horiek zaindu ezinik eta etengabe balioa galtzen; ongizate-gizartea geroz eta gutxiago “on”; aurrekontuetan murrizketak, soldata-jaitsierak... baina prezio eta zerga-igoerak; ikaragarritzko zuloak banku eta herri-finantzetan —erantzulerik? Bai, 4-9 urte arteko zigorra eskatu du fiskalak, Barcinari pastel gozo batzuk baldar samar eskaintzeagatik! Edo esango dizute guztiok garelara errudun, geure ahalmenaz gain bizi izan garelako—. Eta mailegu-emaileak ez omen dira gure kaudimenaz fio; tira, interes-tasa handiagoak ordainduz gero, orduan bai, fio dira. Uler-tzen? Nik ere ez.

Krisia erreala dela ezin ukatu. Baina are okerragoa horren inguruko giro apokaliptiko etsigarria, (shock doktrina!): ezkortasuna, ziurtasunik eza, kezka eta egonezina nagusi; politikaren porrot ozena eta beltzezko gizon-emakumeen pagotxa; politikari



DANI BLANCO

batzuen ezgaitasuna eta arinkeria... Eten-gabe omen gaude amildegiaren ertzean, hondamenditik eta kataklismotik hurbil. Euroa eta eurogunea desagertzeaz omen: agian *corralitoa* bihar, eta gaur jendea dirupoltsak hartuta mugaz bestaldeko banke-txeetara. Eta hori guztiori ustekabea... hain sendoa, aurreratua eta demokratikoa uste genuen Europa honetan! Zerk legitimatzen du gaur egun estatua, bere mende-koak babesteko gai ez eta odola xurgatzeko izain bihurtu bada?

Ni ez nago prest bizi-poza galtzeko burtsaren gorabehera eta arrisku-sariaren aginduetara. Egia da kontrolatzen ez ditugun hari askotatik zintzilika bizi garela, eta ohoin edo ebasle “ikusezin” horiek lapurreta handien biktima egin gaitzaketa zer-gatik eta nola jaki gabe... Baina, hala ere, gure bizi-proiektua eta horren kalitatea geure esku dago. Beldurra, Plazera eta Boterea omen dira biziraupenaren hiru mekanismo primarioak (*El Maestro del Corazón*, Annie Marquier, 42. or. eta hurr.). Bada, maila hori gainditzen ez badugu, jai daukagu. Nolabaiteko “konbertsioa”, erlijio tradizionalekin zerikusí gutxi duen espiritualtasun sakona, lantzen badugu (*El alma del ateísmo*, André Comte-Sponville; *Hacia una espiritualidad laica*, Mariá Corbí), izan dezakegu maila mental eta psikologiko aberatsagoa, giza kalitate handiagoa... eta hor ez gara hain zaurgarriak eta ahulak gurekin nahi dutena egiteko.


Gakoa ez da, eremutar gisa, bakoitza bere barne-bizitza goxoan murgilduta bizitzea; izan ere, eta besteak beste, ez al gaitu muturreko indibidualismo egozentrikoak ekarri pairatzen ari garen egoerara? Baina oinarri sendoko gizon-emakume askoren elkartasun eta borrokak eragin dezake iraultza txiki bat, iraungitako ideologien araberako iraultzaz bestelakoa. ■



Krisia erreala dela ezin ukatu. Baina are okerragoa horren inguruko giro apokaliptiko etsigarria, (shock doktrina!): ezkortasuna, ziurtasunik eza, kezka eta egonezina nagusi; politikaren porrot ozena eta beltzezko gizon-emakumeen pagotxa; politikari batzuen ezgaitasuna eta arinkeria... eta kataklismotik hurbil

ASTE HONETAKO

zozketa



Txondorra erretegia

Harpidedun batentzat
lau lagunentzako afaria

Bizkaia etorbidea, 9/9
Arrasate GIPUZKOA

www.txondorra-sagardotegi.com

1

Ekain berri



Ekainberri

3 harpidedunentzat
bina sarrera

Portale, 9
Zestoa GIPUZKOA

www.ekainberri.com

2



Artium Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoa

3 harpidedunentzat
bina sarrera

Frantzia, 24
Gasteiz ARABA

www.artium.org

3



Sacamantecas nuen aita

Aitor Arana

5 liburu opari

Txalaparta Argitaletxea
Tafalla NAFARROA

www.txalaparta.com

4



Illimani

2 liburu opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2328. Argia)

Besaro

Joseba Ituarte Arkotxa (Ondarroa)

Planetario

Karmele Señorena Arzadun (Donostia)
Juankar Bermejo Mateos (Laudio)
Maite Arregi Tejeria (Villabona-Amasa)

Inguru Abentura

Txebis Gorritxategi Gorosabel (Ermua)
Ardatza Aldizkaria (Gasteiz)
Sara Beraza Jorajuria (Donostia)

Bakea Gudan

Agustin Egaxa Heras (Bilbo)
Errenteriako Udal Euskaltegia (Errenteria)
Alberto Etxeberria Arrese (Oñati)
Belen Irastorza Armendariz (Zaldibia)
Jon Goti Mendiola (Usansolo)

Gartxot

Pedro Azkarragaurizar Igartza (Elorrio)
Koldo Elorz Leoz (Iruñea)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

gunea

argia

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com

www.argia.com/gunea



Telezaborra ikusten duzu beti. Zergatik?

A- Es lo que nos gusta en España. Coño.

B- Désolé, je ne comprends pas votre patois.

C- Ez dago besterik telebistan.

Zure erantzuna A edo B izan bada: Ezin dizugu lagundu.

Zure erantzuna C bada: Beranduegi.tv bisitatu behar duzu. Asteartero.



2012ko Rikardo Arregi Kazetaritza Sarietako epaimahaiaren sari berezia.
Beranduegi... ohiko albistegi bat egiteko.



www.beranduegi.tv

www.argia.com



Beranduegi.tv